El objetivo de esta línea de actuación está enfocado hacia la adherencia del alumnado a unos hábitos de práctica deportiva que serán permanentes en su madurez, por lo que está muy relacionado con objetivos de **salud** al potenciar la actividad física y, por tanto, combatir uno de los factores de riesgo más importantes de nuestro tiempo: el sedentarismo. Por otra parte, el aprendizaje y la propia práctica deportiva van a descubrir al alumnado nuevas destrezas, capacidades y potencialidades de su cuerpo que van a redundar en un mejor estado y conciencia de su salud, ya desde la corta edad de su práctica.

La línea de actuación 0-18 plantea objetivos complementarios, como el desarrollo integral del niño y de la niña a través de la **educación**

garapena sustatzea. Arauak eta talde aurkariko kideekiko errespetua funtsezkotzat jotzen dira, kirolaren esparruan, askotan, gizarteak, kirolari ospetsu batzuen bitartez edo gurasoen jokabide jakin batzuen bitartez, ez baitu gehiegi lagutzen. Arau orokor batzuk ere ezartzen dira, irabazteari lehentasuna eman ordez, parte hartzearen balioa azpimarratzeko; eta haurrak helduen kirolelara egokitu ordez, helduen kiroleko arauak haurrentzako egokituz. Azkenik, jarduera batzuetan neska eta mutilak talde berean nahasten dira, eta emaitzaren ordez, jokabideari ematen zaio lehentasuna.

Kirol-ohiturak txiki-txikitatik edukitzeak eragin handia du **aisialdia** modu egokian erabiltzeko orduan, hain zuzen ere **kirol-jarduerak** eginez.

**Mugikortasun-plana** garatu da, kirol-ekintzetara egin beharreko joan-etorrietan garraio publiko edo kolektiboa modu arrazionalen erabiltzeko, eskuragarri dauden baliabideak optimizatzeko eta joan-etorri partikularrak saihesteko. Bestalde, Kirol Zerbitzuaren plan eta programa guztien diseinuan ageri da **lurralde plangintza**, baliabideak arrazionalizatu eta optimizatzeko orduan, lurralde plangintzak garrantzi handia baitu.

Eskola-garaiko adinak funtsezkoak dira **pertsonen sozializazioan**. Programako kirol-ekintzek bazter-arrisku gehien duten kolektiboen gizarteratzea sustatu eta bultzatzen dute. Integrazio hori kirolari, teknikari, epaile edo kudeatzaile-papera betez egin daiteke.

### **300. programa.- Elkartegintza jardueratza.**

0-18 jarduera-ardatzerako xedatutakoa, beste maila eta adin-tarteetan, baliagarria da elkartegintza esparruan ere, hain zuzen ere *osasuna, hezkuntza eta ezagutza, mugikortasuna eta lurralde plangintza, aisialdia eta kirol-ekintzak* eta gizarte

en valores. Acciones de inculcación del respeto a las reglas que se han establecido o a los componentes del equipo oponente se consideran fundamentales en una actividad en la que la sociedad, a través de algunos ejemplos de deportistas de referencia o de determinadas actitudes de padres y madres no ayudan demasiado. También se establecen unas reglas generales por las que se priman los valores de participación sobre los de la competición, o los valores de adaptación al o la menor sobre los de adaptación de los menores a los reglamentos del deporte adulto. Finalmente, en algunas actividades se potencia la participación mixta de chicos y chicas en un mismo equipo y se intenta primar la actitud sobre el resultado.

La consecución desde edades tempranas de hábitos deportivos incide marcadamente en una adecuada utilización del **tiempo libre** en forma de **actividades deportivas**.

Se ha desarrollado un **Plan de Movilidad** buscando como objetivo la utilización racional del transporte público o colectivo en los desplazamientos a competiciones deportivas, optimizando los recursos disponibles y tratando de evitar desplazamientos particulares. Por otra parte, la **planificación territorial** está presente en el diseño de todos los planes y programas del Servicio de Deportes, al tener en cuenta la importancia de la misma a la hora de racionalizar y optimizar recursos.

Las edades escolares son fundamentales en la **socialización de las personas**. Las actividades deportivas del programa fomentan y ayudan a la integración social de aquellos colectivos que presentan mayor probabilidad de exclusión. Esta integración se puede llevar a cabo desde el rol de deportista, de técnico/técnica, de árbitro/árbitra o de puestos de gestión.

### **Programa 300.- Línea de actuación Asociacionismo.**

Lo señalado para la línea de actuación *0- 18*, a otro nivel y en otras franjas de edades, es válido también para la de *Asociacionismo* en lo que compete a las capacidades *Salud, Educación y Conocimiento, Movilidad y Planificación Territorial, Tiempo Libre y*

*partaidetza erkidegoan gaitasunei dagokienez.*

*Actividades Deportivas y Participación social en la comunidad.*

Horrez gain, emakumeek, kirol-erakundeetako teknikari edo kudeatzaile gisa, lan ordaindu batera iristeko aukerak ere eragina du ardatz honetan.

A ello hay que añadir la incidencia de esta línea en la posibilidad de acceso de las mujeres a un trabajo remunerado, bien sea como técnica o como gestora de entidades deportivas.

### **100. programa.- Goi Maila jarduera-ardatza.**

### **Programa 100.- Línea de actuación Alto Nivel**

Goi Maila jarduera-ardatza bat dator Elkartegintzarekin zenbait gaitasunetan: *Hezkuntza eta ezagutzan (ezagutzaren esparruan), mugikortasun eta lurralde plangintzan, lan ordainduan eta gizarte partaidetzan.*

La línea de actuación de Alto Nivel coincide con la de Asociacionismo en varias capacidades: *Educación y Conocimiento* (en su aspecto de *Conocimiento*), *Movilidad y Planificación Territorial*, *Trabajo remunerado y Participación Social*.

### **c) Jarduera/programetako emaitzen azterketa.**

### **c) Análisis de resultados de actividades/programas.**

#### **Onuradunak izan daitezkeenak.**

#### **Colectivo potencialmente beneficiario.**

**300- 0-18 jarduera-ardatza.** Izenak berak adierazten du jarduera zein adin-tartera zuzenduta dagoen. Gaur egun, adin-tarte horretako kide guztientzako jarduerak eskaini ez arren, gutxi gorabehera 110.000 onuradun egon daitezkeela kalkulatu da. Adingabe askok hainbat jardueretan parte hartzen dute, adingabeen jarrera eta gaitasunetara egokitu daude horiek, eta arreta berezia behar duten kolektiboetan berriazko esku-hartzeak egiten dira.

**300- Línea de actuación 0-18.** Su nombre enmarca la edad de la población a la que se dirige la actuación. Aunque sus actividades no se ofertan actualmente a todos los integrantes en esa franja de edad, hablamos de unos beneficiarios potenciales en torno a 110.000 personas de las cuáles un número elevado participan en sus distintas actividades, adaptadas a las actitudes y aptitudes de los menores y con intervenciones específicas en colectivos de especial atención.

**300- Elkartegintza.** Kirolaren esparruan, Gipuzkoa mailan sortzen den ekimen sozialari babesa ematea da helburua. Horretarako, Gipuzkoako kirol -federazio, -klub eta -kirola sustatzen duten bestelako erakundeak dira jardueren xede. Guztira 46 kirol-federazio daude Gipuzkoan, eta 79.946 kirol-lizentzia izapidetzen dituzte (Gipuzkoako populazioaren % 11,4). Eusko Jaurlaritzako kirol erakundeen erregistroan 1.310 gipuzkoar klub daude erregistratuta. Hala ere, gaur egun, horietatik 698k funtzionatzen dute, eta guztira 1.179 kirol-atal daude aktibo.

**300- Asociacionismo.** Se dirige a apoyar a la iniciativa social que se da en Gipuzkoa en el ámbito del deporte, siendo objeto de la actuación las federaciones deportivas guipuzcoanas y los clubes y otras entidades que fomentan el deporte en nuestro Territorio. Las federaciones deportivas guipuzcoanas son 46 y tramitan 79.946 licencias deportivas (un 11,4% de la población guipuzcoana). Los clubes guipuzcoanos que se encuentran actualmente registrados en el Registro de Entidades deportivas del Gobierno Vasco son 1.310, aunque consideramos que son 698 los clubes guipuzcoanos que actualmente funcionan, con un total de 1.179 secciones deportivas activas.

**300- Goi Maila.** Jarduera-ardatz horren barne dagoela zehazteko, kirolari, kirol-talde edo

**300- Alto Nivel.** La consideración como integrante de esta línea de actuación viene

kirol-erakunde batek kirol-maila jakin bat lortu behar du; eta kirolari, kirol-talde edo kirol-erakundearen kirol-maila zehazten duten irizpide batzuen arabera erabakitzen da maila hori. Horregatik, onuradun izan daitekeen kolektiboa urtero alda daiteke, eta ondorioz, kolektibo hori erabat zehaztu ezin denez, Gipuzkoako kirol-maila oso mugatuaren adierazpen gisa aurkez daiteke.

Horrelako kolektiboen premietan sakondu ahal izateko, Gipuzkoako Kirol Kontseilua dago (esparru bakoitzeko batzorde bereziak dituena), eta bertan, Gipuzkoako kirol-esparruko eragile sozial ezberdinek parte hartzen dute.

Beste alde batetik, tresna sozial batzuk jarri dira abian, taldeen bitartez, Gipuzkoa Kirolak erakundearen webgunean partaidetza soziala errazteko (2.0 aldera begira).

Nolanahi ere, aplikatu beharreko kirol-politika egokiari buruzko ezagutza lortzeko, ebaluazio-sistematika egokia ezarri behar da, hain zuzen ere, datuei buruzko hausnarketa-txostenaren ondoren ageri den atalean aipatzen direnak.

**c.1. 2010eko adierazleak: Partaide-kopurua, sexuaren arabera; eta kopuru osoarekiko emakumeen %**

marcada por la obtención del deportista, equipo u organización de un nivel deportivo determinado, que se establece a través de unos criterios que nos marcan el nivel deportivo del deportista, equipo u organización. Es por ello por lo que el colectivo beneficiario podrá cambiar cada año, y por lo que, sin proceder a definirlo totalmente, podemos presentarlo como una representación muy restringida del nivel del deporte guipuzcoano.

Para poder profundizar en las necesidades e intereses de estos colectivos, contamos con un órgano consultivo, el Consejo Guipuzcoano del Deporte (con sus diversos comités específicos por área), en los que participan distintos tipos de agentes sociales del deporte de Gipuzkoa.

Por otra parte, se han implantado distintas herramientas que facilitan la participación social a través de grupos en la web Gipuzkoa Kirolak (de orientación 2.0).

No obstante, el conocimiento sobre la adecuada política deportiva a implantar solamente lo podremos obtener a partir del establecimiento de una adecuada sistemática de evaluación, que se comenta en el apartado posterior del informe relativo a la reflexión sobre los datos.

**c.1. Indicadores 2010: N° de personas participantes por sexo y % mujeres sobre el total**

1. Taula. Eskola-kiroleko partaideak, sexuaren eta emakumeen %-aren arabera /  
Tabla 1. Participantes deporte escolar desagregado por sexo y % mujeres

<b>Eskola-kiroleko partaideak/ Participantes Deporte Escolar</b>	<b>Emakumeak/ Mujeres</b>	<b>Gizonak/ Hombres</b>	<b>Guztira (T) Total (T)</b>	<b>Emakumeen%/T % Mujeres/T</b>
Lehiaketa kirolariak / Deportista Competición	10.162	12.543	22.705	44,75
Hezkuntza kirolariak / Deportistas Enseñanza	13.758	15.034	28.792	47,8
<b>Eskola Kiroleko kirolariak guztira/ Total Deportistas Deporte Escolar</b>	<b>23.920</b>	<b>27.577</b>	<b>51.497</b>	<b>46,45</b>

2. Taula. 2009-2010 bitarte federatutako lizentzia-kopurua, sexuaren eta emakume %-aren arabera /

Tabla 2. N° Licencias federadas 2009-2010 desagregadas por sexo y % M

<b>2009-2010 bitarte federatutako lizentziak Licencias federadas 2009-2010</b>	<b>Emakumeak/ Mujeres</b>	<b>Gizonak/ Hombres</b>	<b>Guztira/ Total</b>	<b>Emakumeen %/T % Mujeres/T</b>
Infantilen lizentziak / Licencias infantiles	160	1.873	2.033	8%
Kadeteen lizentziak / Licencias cadetes	1.741	4.633	6.374	27%
Jubenilen lizentziak / Licencias juveniles	989	4.325	5.314	19%
Juniorren lizentziak / Licencias Junior	695	1.771	2.466	28%
Seniorren lizentziak / Licencias Senior	11.289	36.150	47.439	24%
Jolas kirolerako lizentziak / Licencias Recreativas	2.028	8.425	10.453	19%
Kirol lizentziak guztira / Total Licencias Deportivas	16.902	57.177	74.079	23%
Bestelako Lizentziak / Otras licencias	109	1.676	1.785	6%
Teknikariak	180	2.188	2.368	8%
Epaileak	282	1.432	1.714	16%
Teknikari eta kudeatzaileen lizentziak guztira / Total licencias técnicas y de gestión	571	5.296	5.867	10%
<b>Federatutako lizentziak guztira / Total licencias federadas</b>	<b>17.473</b>	<b>62.473</b>	<b>79.946</b>	<b>22%</b>

3. Taula: Gazteen artean kirola sustatzeko planeko (PDJ) kirolariak, sexuaren eta emakume %-aren arabera /

Tabla 3. Deportistas PDJ desagregados por sexo y % Mujeres

<b>Gazteen artean kirola sustatzeko planeko kirolariak / Deportistas PDJ</b>	<b>Emakumeak / Mujeres</b>	<b>Gizonak / Hombres</b>	<b>Guztira (T) / Total (T)</b>	<b>Emakumeen % (T) / %Mujeres/T</b>
Saskibaloia / Baloncesto*	1.332	1.404	2.736	49%
Eskubaloia / Balonmano *	798	896	1.694	47%
Arraunketa / Remo	109	297	406	27%
<b>Guztira / Total *</b>	<b>1.789</b>	<b>2.107</b>	<b>3.896</b>	<b>46%</b>

(\*) Saskibaloia eta eskubaloia: Talde-kopurua, bider 12 eta bider 14, hurrenez hurren

(\*) Baloncesto y Balonmano: N° de equipos multiplicado por 12 y 14, respectivamente.

c.2 2010eko aurrekontua generoaren c.2 Ejecución del Presupuesto 2010 en arabera gauzatzea función al género

c.2.1. 0-18 JARDUERA-ARDATZA

c.2.1. LÍNEA DE ACTUACIÓN 0-18

Kontzeptua / Gastua Concepto / Gasto	Emakumeak/ Mujeres	Gizonak/ Hombres	Guztira/ Total
Eskola kirola / Deporte Escolar	1.103.989	1.272.772	2.376.761
Gazteen artean kirola sustatzeko plana (PDJ) / PDJ	74.210	93.634	167.844
<b>Guztira 0-18 / total 0-18</b>	<b>1.178.199</b>	<b>1.366.406</b>	<b>2.544.605</b>

Kontzeptua / Gastua Concepto / Gasto	Emakumeak/ Mujeres	Gizonak/ Hombres	Guztira/ Total
Eskola kirola / Deporte Escolar	46,45%	53,55%	100,00%
Gazteen artean kirola sustatzeko plana (PDJ) / PDJ	44,21%	55,79%	100,00%
<b>Guztira 0-18 / total 0-18</b>	<b>46,30%</b>	<b>53,70%</b>	<b>100,00%</b>

c.2.2. ELKARTEGINTZA JARDUERA-ARDATZA

c.2.2. LÍNEA DE ACTUACIÓN ASOCIACIONISMO

Kontzeptua / Concepto	Emakumeak/ Mujeres	Gizonak/ Hombres	Guztira/ Total
Elkartegintzaren gastua / Gasto Asociacionismo	505.532	1.807.480	2.313.012
Elkartegintzaren portzentajea / Porcentaje Asociacionismo	% 21,86	% 78,14	% 100,00

c.2.3. GOI MAILA JARDUERA-ARDATZA

c.2.3. LÍNEA DE ACTUACIÓN ALTO NIVEL

Kontzeptua / Gastua Concepto / Gasto	Emakumeak/ Mujeres	Gizonak/ Hombres	Bereizi gabe/ Sin desagregar	Guztira/ Total
KIROLGI gastu / Gasto KIROLGI	459.648	681.610	370.742	1.512.000
Ikuskizunak, ospakizunak / Espectáculo, Acontecimientos	722.615	2.534.257	301.055	3.557.927
<b>Guztira GOI MAILA / Total ALTO NIVEL</b>	<b>1.182.263</b>	<b>3.215.867</b>	<b>671.797</b>	<b>5.069.927</b>

<b>Kontzeptua / Portzentajea Concepto / Porcentaje</b>	<b>Emakumeak/ Mujeres</b>	<b>Gizonak/ Hombres</b>	<b>Bereizi gabe/ Sin desagregar</b>	<b>Guztira/ Total</b>
KIROLGI portzentajea / Porcentaje KIROLGI	% 30,40	% 45,08	% 24,52	% 100
Ikuskizun, gertaera portzentajea Porcentaje Espectáculo, Acont.	% 20,31	% 71,23	% 8,46	% 100
<b>GOI MAILA portzentajea Porcentaje ALTO NIVEL</b>	<b>% 23,32</b>	<b>% 63,43</b>	<b>% 13,25</b>	<b>% 100</b>

#### **c.2.4. EBALUATUTAKO JARDUERA- ARDATZAK GUZTIRA**

#### **c.2.4. TOTAL DE LAS LÍNEAS DE ACTUACIÓN EVALUADAS**

<b>EBALUATUTAKO ARDATZAK GUZTIRA / TOTAL LÍNEAS EVALUADAS</b>	<b>Emakumeak / Mujeres</b>	<b>Gizonak/ Hombres</b>	<b>Bereizi gabe/ Sin desagregar</b>	<b>Guztira/ Total</b>
Aurrekontua / Presupuesto	2.865.994	6.389.753	671.797	9.927.544
Portzentajea / Porcentaje	<b>% 28,87</b>	<b>% 64,36</b>	<b>% 6,77</b>	<b>% 100</b>

#### **d).- Ondorioak**

#### **d).- Conclusiones**

##### **d.1. Jardueren/programen datuei buruzko hausnarketa.**

##### **d.1. Reflexión en torno a los datos de las actividades/programas.**

Hautatutako hiru jarduera-ardatzei buruzko datuei begira, aipagarria da 35 puntuko genero-tartea dagoela: Elkartegintzaren ardatzak 56 puntu ditu (bertan, emakumeak kopuru osoaren % 22 bakarrik dira) eta 0-18 jarduera-ardatzean, 7 puntuko aldea dago.

La lectura de los datos relativos a las tres líneas de actuación seleccionadas refleja que existe una importante brecha de género de 35 puntos, que oscila entre los 56 puntos que se dan en la línea de Asociacionismo (en la que las mujeres solo suponen el 22% del total) y los 7 puntos diferenciales que dan en la línea de actuación 0-18.

Aipatutako puntuazio-alde horiek Gipuzkoako gizartearen kirol-jardunean dauden genero ezberdintasunak islatzen dituzte. Genero-ezberdintasun horiek oso handiak dira Goi Mailan eta Elkartegintzan, eta ez dira horren nabariak 18 urtetik beherakoan jarduera fisikoan.

Las diferencias señaladas reflejan las desigualdades de género existentes en la práctica deportiva de la sociedad guipuzcoana, muy importantes en lo relativo al Alto Nivel y al Asociacionismo y más reducidas en la práctica de actividad física de menores de 18 años.

Gure gizartearen ageri diren ezberdintasun handi horiek agerian uzten dute garrantzitsua dela 2011-2014 jarduera-planaren jarraipen zehatza egitea, bertan, Gipuzkoa mailan, emakumeek kirolak egiteko dituzten oztopoei aurre egiteko neurriak biltzen baitira (plan hori txosten honetako hurrengo atalean ageri

Estas grandes diferencias que se dan en nuestra sociedad reflejan la importancia de realizar un seguimiento exhaustivo del plan de actuación 2011-2014 que recoge medidas para hacer frente a estas desigualdades en el acceso efectivo a la práctica deportiva por parte de las mujeres de Gipuzkoa, y que se describe en

da, 4.2. puntuan).

Kirol Zuzendaritza Nagusian datu asko ditugu, horietako asko berezita daude, hain zuzen ere, aurrekontu-portzentajeetan ageri den moduan, bereizi gabeko aurrekontua ez baita % 7ra iristen.

Hala ere, datu paneleko zenbait alderdi hobetu egin daitezke. Besteak beste, aurrekontua kudeatzeko tresna bakoitzari (webguneko kudeaketa ekonomikoa, diru-laguntzen aplikazioa...) kontzeptu bat esleitzeko etiketak erabiliz (gizona/emakumea, programa edo plan-motak, prozesuak...), era horretan, aurrekontuan idazpenak egiten direnean, kontzeptu horiek zuzenean esleitzeko (gaur egun egoitza eta aterpetxe-zentroekin egiten den moduan).

Nolanahi ere, hobekuntza horiek guztiak ebaluazio-sistematika baten bitartez aplikatu beharko lirake:

- Jarduera-ardatzak modelizatu, esku-hartzearen logika aztertuz, eta Gipuzkoan zehar hedatzean, bertan parte hartuko duten pertsonak zehaztuz.
- Aipatutako jarduera-ardatzaren jarraipen- eta ebaluazio-sistematika eratu.
- Datu-panel egoki eta fidagarria edukiz (garrantzia eta eragin berezia duten alderdi batzuetan, datu asko bereizi gabe daudela antzeman da, esaterako, kirol-klub eta -federazioetako zuzendaritza-postuetan emakumeen presentzia zenbatekoa den aztertzeko orduan).
- Ebaluazio-kultura sustatu, ez Kirol Zuzendaritza Nagusiko langileen artean bakarrik, Gipuzkoako kirol-eragileen artean ere bai. Izan ere, kultura hori barneratuz gero, datu fidagarriagoak lortuko dira, eta stakeholderrak gehiago inplikatu dira gure kirol-politiken garapenean.
- Ebaluazioen emaitzak ezagutzera eman.

el siguiente apartado de este informe (punto 4.2.).

En la Dirección General de Deporte contamos con un importante número de datos, muchos de los cuales están desagregados, como lo demuestra que el porcentaje del presupuesto evaluado que no está desagregado no llega al 7%.

Aún así, se puede mejorar el panel de datos en varios aspectos. Uno de ellos, estableciendo una sistemática de imputación de los diferentes conceptos a las herramientas de gestión presupuestaria (Gestión Económica Web, Aplicación de subvenciones, ...), a través de etiquetas (hombre/mujer, tipos de programas o planes, procesos...), que se imputarían al introducir cada asiento contable en el presupuesto (en la forma que actualmente se hace con centros como Residencias, Albergues...).

No obstante, todas estas mejoras deberían ser incorporadas a través de una sistemática de evaluación:

- Modelizando las líneas de actuación, analizando la lógica de la intervención, caracterizando las personas intervinientes en su despliegue en el Territorio.
- Construyendo una sistemática de seguimiento y evaluación de las líneas de actuación señaladas.
- Disponiendo de un adecuado y fiable panel de datos (se detecta una falta importante de datos desagregados en algún aspecto de especial incidencia como, por ejemplo, en la presencia de las mujeres en los cargos directivos de los clubes y federaciones deportivas)
- Fomentando una cultura de evaluación, no solamente en los integrantes de la Dirección de Deporte, sino también entre los agentes del deporte de Gipuzkoa, ya que la asunción de esa cultura nos va a permitir la obtención de datos más fiables y una mayor implicación de los stakeholders en el desarrollo de nuestras políticas deportivas.
- Socializando los resultados de las evaluaciones.



**d.2.- Aurrekontuan generoak duen eraginari buruzko hausnarketa.**

Kirol Zuzendaritza Nagusiak gai honi buruzko hausnarketa-prozesua egin zuen bere garaian, eta horren emaitza gisa, Gizonen eta emakumeen berdintasuna Gipuzkoako kirol arloan, 2011-2014 jarduketa-plana izeneko plana onartu zuen (Plana ikusi nahi izanez gero, ikus [Gipuzkoa Kirolak - Igualdad](#)).

Puntu honetan, txosten honetan aipatutako planaren edukietara mugatuko gara, eta gaur egun bertan xedatutakoa nola garatu den aztertuko dugu.

Gipuzkoako kirol arloan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko 2011-2014 Jarduketa-Planaren helburu nagusia da **emakumeek kirol-esparruan jasaten dituzten diskriminazio eta oztopoak desagerraraztea.**

Horretarako, ekintza-katalogo bat zehazten du, eta ekintza horiek guztiak 7 atal nagusitan banatuta daude. Jarraian, Planean xedatutakoa ageri da, eta bertan, 2011 eta 2012 bitarte egin beharreko jarduera eta programak ageri dira, labur-labur azalduta.

**1. Datuak/diagnosiak**

**d.2.- Reflexión en torno al impacto de género del presupuesto.**

El Servicio de Deporte abrió ya en su día un proceso de reflexión al respecto, que ha finalizado con la elaboración del Plan de Actuación 2011-2014 en materia de igualdad en el deporte (Se puede acceder al Plan a través de [Gipuzkoa Kirolak - Igualdad](#)).

Este punto del informe se va a ceñir a los contenidos de dicho Plan y a su desarrollo en la actualidad.

El Plan de Actuación 2011-2014 para la igualdad de mujeres y hombres en el ámbito deportivo guipuzcoano plantea como objetivo principal el **eliminar los obstáculos y las situaciones de discriminación que padecen las mujeres en el ámbito deportivo.**

Para ello establece un catálogo de acciones agrupadas en 7 grandes apartados. Se recoge a continuación lo incluido en el Plan y sumariamente las actividades programadas para ser realizadas en 2011 y 2012.

**1. Datos/diagnósticos**

<b>1. Datuak lortu eta diagnosiak egitea /</b> Obtención de <b>datos</b> y realización de <b>diagnósticos</b>	1.1. Erakunde arteko batzorde bat sortzea, kirolaren esparruan, generoaren ikuspegitik datuak biltzeko protokoloa zehazteko/ Crear una Comisión Interinstitucional para establecer un protocolo para la recogida de datos desde la perspectiva de género en el ámbito deportivo.
	1.2. EAEn datu sistematizatuak bilduko direla bermatzeko, erakundeen arteko konpromiso-mekanismoak ezartzea, era horretan, kirolaren esparruan berdintasun-politikak zehazteko/ Establecer mecanismos de compromiso institucional en la CAPV para garantizar la recogida de datos sistematizados para establecer políticas de igualdad en el ámbito deportivo.

<p><b>1. Datuak</b> lortu eta <b>diagnosiak</b> egitea / Obtención de <b>datos</b> y realización de <b>diagnósticos</b></p>	<p>1.3. Kirolaren esparruan emakumeek duten presentziari buruzko datu kuantitatibo eta kualitatiboak biltzea. 1.1. atalean aipatutako protokoloari jarraiki, datu horiek kirol-ibilbide, adina, sexu eta praktikaturako kirol-modalitatearen arabera sailkatu beharko dira/ Recoger datos cuantitativos y cualitativos sobre la presencia de las mujeres en el ámbito deportivo. Estos datos deberán estar segmentados por itinerario deportivo, edad, sexo y modalidad practicada, de acuerdo al protocolo señalado en la acción 1.1.</p>
	<p>1.4. Kirolaren esparruan dauden diskriminazio-egoera eta oztopoei buruzko diagnosiak eta azterlan kuantitatibo zein kualitatiboak egitea, eta horiek guztiak zuzentzeko esku-hartzen neurriak ezartzea/ Realizar diagnósticos y estudios tanto cuantitativos como cualitativos sobre los obstáculos y situaciones de discriminación existentes en el ámbito deportivo y establecer medidas de intervención para corregir las mismas.</p>

Datozen bi urtetan Kirol Zuzendaritza Nagusiak (KZN) datuak segmentatzeko proiektu bat jarriko du abian, eta hori bete arte, ezingo dira **1.1.** eta **1.2.** ekintzak egin. Kirolaren esparruan datuak modu egokian bildu eta tratatzeko irizpideak ezarri nahi dira proiektu horretan. Irizpide horiek zehaztu ondoren, erakunde arteko batzordea sortuko da, eta bertan lan-proposamen zehatza aurkeztuko da.

**1.3.-** Datuak sailkatzeko proiektuak kirolean berdintasuna sustatzeko lantaldearen onspena izan beharko du, era horretan, kirolaren esparruan datuak bildu eta horiei tratamendua emateko irizpide egokiak zehazteko orduan, generoaren ikuspegia ere bertan sartzeko.

Datozen bi urtetan, generoaren ikuspegitik egun dauden gabeziak antzemango dira Gipuzkoako kirol-esparruko datuetan, eta antzemandako hobekuntza-premia horiek biltzen dituen dokumentu bat osatuko da, aurrerago, hobekuntza-proposamen horiek arestian aipatu dugun proiektuan sartzeko, datuak sailkatzeari buruzkoan, alegia.

**1.4.-** Oztopoak, premiak eta bazterketa-egoeren zantzuak antzemateko lau iturri proposatu dira: antzemandako hobekuntza-

Las acciones **1.1.** y **1.2.** quedan supeditadas al proyecto de segmentación de datos que llevará a cabo la Dirección General de Deportes (DGD) en los próximos dos años. En este proyecto se pretenden establecer los criterios para una recogida y tratamiento de datos apropiada en el ámbito deportivo. Una vez dichos criterios estén definidos, se podrá proponer la creación de la Comisión Interinstitucional, y presentar en la misma una propuesta concreta de trabajo.

**1.3.-** El proyecto de segmentación de datos deberá contar con el apoyo del grupo de trabajo sobre igualdad en el deporte, para la incorporación de la perspectiva de género en el establecimiento de criterios apropiados para la recogida y tratamiento de datos en el ámbito deportivo.

En los próximos dos años, se identificarán los déficits existentes –desde la perspectiva de género– en los datos disponibles sobre el ámbito deportivo guipuzcoano y se elaborará un documento con una relación de las necesidades de mejora detectadas, para incorporarlas al citado proyecto de segmentación de datos.

**1.4.-** Se proponen cuatro fuentes de identificación de obstáculos, necesidades y de indicios de situaciones de discriminación:

premiak, datuak sailkatzeko aipatutako proiektuan sartzeko.

necesidades de mejora detectadas, para incorporarlas al citado proyecto de segmentación de datos.

- Datuak sailkatzeko proiektuan antzemandako premien ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza Nagusiak egin beharreko diagnosi eta azterlanak.

- Diagnósticos y estudios a realizar desde la DGD de la DFG, derivados de las necesidades detectadas en el proyecto de segmentación de datos.

- Diagnosi bat egitea, Gipuzkoan, kirol-esparruko maila ezberdinetan parte hartzen duten emakumeen egoera ezagutzeko.

- Realizar un diagnóstico para conocer la situación de las mujeres que participan en los diferentes niveles del ámbito deportivo de Gipuzkoa (directivas, técnicas, árbitras).

- Departamentu honek diru-laguntzak emateko dituen lerroen bitartez, hirugarren pertsonak egingandako azterlan-proposamenak ezagutzea.

- Propuestas de investigación realizadas por terceras personas a través de las líneas de subvención del Departamento.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren webgunearen bidez bildutako kekek, Gipuzkoako kirol-esparruan sortzen diren diskriminazio-egoerei buruzkoa.

- Quejas sobre discriminación en el ámbito deportivo guipuzcoano recopiladas a través de la WEB del Servicio de Deportes (SVD) de la DFG.

- "*Berdintasun-politikak emakumearentzako goi-mailako kirolean*" (2009ko 8. Mozioa - Gipuzkoako Batzar Nagusiak) eta "*Goi-mailako kirol jardueraren eragina baloratzeko irizpideak eta aldagaiak*" izeneko azterketatik (Gipuzkoako Kirol Kontseiluan onartutako 2010eko maiatzean) ateratako jarduera edo esku-hartzeak aplikatzea.

- Actuaciones o medidas de intervención derivadas de los estudios llevados a cabo sobre "*Políticas de igualdad para la mujer en el deporte profesional o de élite*" (Moción 8 - 2009-, de las Juntas Generales de Gipuzkoa) y sobre "*Criterios y variables para valorar el impacto de la actividad deportiva de alto nivel*" (Aprobado por el Consejo Guipuzcoano del Deporte en mayo de 2010).

Diskriminazio-egoerak, premiak eta oztopoak antzemateko, Kirol Zerbitzuak tresna hauek edukiko ditu eskuragarri:

Las herramientas con las que contará el SVD para identificar obstáculos, necesidades e indicios de situaciones de discriminación son las siguientes:

A) Kirol Zerbitzuko kirol plangintzaren eta antolamenduaren alorreko berdintasunaren aldeko lantaldea.

A) El grupo de trabajo de igualdad del Área de Ordenación y Planificación Deportiva (APODE) del SVD.

B) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Departamentuak eta Kanpo Harremanetako Departamentuak ematen dituzten diru-laguntza lerroak aztertzeke proposamenak.

B) Propuestas de investigación en las líneas de subvención del Departamento de Deportes y Acción Exterior de la DFG.

C) Azterlanak egiteko kanpo-kontratazioa.

C) Contratación externa para la realización de estudios

## 2. Eskaintza

## 2. Oferta

2. Kirol eskaintza / Oferta deportiva	2.1. Berdintasunaren printzipioa errespetatuko duen kirol eskaintza bermatzea, emakumeen premia, interes eta asmoetarako egokia betiere, kirol-ibilbidearen, adinaren eta praktikaturako kirol modalitatearen arabera/ Garantizar una oferta deportiva que respete el principio de igualdad, adecuada a las necesidades, intereses y aspiraciones de las mujeres según el itinerario deportivo, la edad y la modalidad practicada
	2.2. Kirol eskaintzaren eremu guztietan egon ohi diren diskriminazio-egoerak desagerraraztea/ Eliminar las situaciones de discriminación existentes en todos los ámbitos de la oferta deportiva
	2.3. Kirol-ekipamenduen plangintza, diseinua, antolaketa eta banaketa egokia bermatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-irizpideetan oinarrituta/ Garantizar una planificación, diseño, organización y distribución de los equipamientos deportivos basada en criterios de igualdad de mujeres y hombres.

Maila ezberdinetako premia edo hobekuntza-beharrei buruzko katalogoa osatuko da. Urtean behin, ardatz edo esparru batzuei lehenetsuna emango zaie, horiek oinarritzat hartuta, generoaren ikuspegia aplikatu eta diskriminazio-egoerak desagerrarazteko.

Se realizará un catálogo de las necesidades o de los aspectos a mejorar en los diferentes niveles. Anualmente se priorizarán las líneas o ámbitos sobre los que se centrará la incorporación de la perspectiva de género y la eliminación de situaciones de discriminación.

Bi jarduera-mota ezartzea proposatzen da: **jarduera proaktiboak**, Kirol Zuzendaritza Nagusiaren ustez beharrezkoak edo lehenetsunezkoak direnak; eta **jarduera errektiboak**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko webgunean jasotako kexen ondorio direnak.

Se propone establecer dos tipos de actuaciones: **actuaciones proactivas**, consideradas necesarias o prioritarias por la DGD, y **actuaciones reactivas**, derivadas de las quejas recibidas a través de la WEB del SVD de la DFG, o de otras fuentes ajenas al mismo.

**2.1.** Funtsean, jarduera **proaktiboak** dira honakoak. Jarduera horiek bi taldetan bereizten dira:

**2.1.** Fundamentalmente, actuaciones **proactivas**. Estas actuaciones se diferenciarán en dos grupos:

### A) Lehenetsunezkoak

- Eskola-kiroleko programarako egindako proposamenak eranstea (Ikus "*Berdintasuna eskola-kirolean*" dokumentua, 2010eko abendukoa).

### A) Prioritarias

- Incorporación de las propuestas realizadas al programa de deporte escolar (Ver documento "*Igualdad en el deporte escolar*", de diciembre de 2010).

- "*Berdintasun-politikak emakumearentzako goi-mailako kirolean*" (2009ko 8. Mozioa) azterlanetik ateratako gomendioak aplikatzea.

- Aplicación de las recomendaciones derivadas del estudio sobre "*Políticas de igualdad para la mujer en el deporte profesional o de élite*" (Moción 8 de 2009).

- Generoaren ikuspegia txertatzea "*Goi-*

- Incorporación de la perspectiva de género en

mailako kirol jardueraren eragina baloratzeko irizpideak eta aldagaiak" azterlanean.

- Emakumeen futbol eta arraunketa-modalitateetan diskriminazio-egoerak desagerraraztea (aurreko kanpainetan, bi modalitatea horiek berrantolatzeko prozesuei ekin zaie).

## B) Beharrezkoak

Jarduera-zerrenda bat egingo da, eta horiek hiru mailetan gauzatu beharko dira:

- Eskola-kirolean
- Goi Mailan
- Modalitateen berrantolaketan, horien eskaintzaren antolaketa barne (baliabide ekonomiko, materialak eta langileak banatzea barne).

### 2.2. Funtsean, **jarduera erreaktiboak dira honakoak:**

Kirol Zerbitzuko webgunean "berdintasunari buruzko keak" atala jarri behar da martxan, bestela ezin da ekintza hau egin.

2.3. 2.1. eta 2.2. ataletan zehaztutako maila ezberdinetan zeharka aplikatzen diren jardueraz gain, *Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Ekipamenduen Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapena* garatzeko proiektuak kirolean berdintasuna sustatzeko lantaldearen laguntza izan beharko du, kirol-esparru eta -ekipamenduen diseinu, eraikuntza eta banaketarako irizpide egokiak ezartzean, generoaren ikuspegia ezartzeko.

Generoaren ikuspegia oinarritzat hartuta, Kirol Ekipamenduen Lurraldearen Arloko Planaren irizpideetan sartu beharreko gomendio-katalogo bat osatuko da.

el estudio "Criterios y variables para valorar el impacto de la actividad deportiva de alto nivel".

- Eliminar las situaciones de discriminación en las modalidades de fútbol femenino y remo (modalidades con procesos de reordenación de modalidades iniciados en campañas anteriores)

## B) Necesarias

Se elaborará un listado de actuaciones a llevar a cabo en tres niveles:

- Deporte escolar
- Alto Nivel
- Reordenación de modalidades, incluida la organización de la oferta existente en las mismas (distribución de recursos económicos, humanos y materiales)

### 2.2. Fundamentalmente, actuaciones reactivas.

Esta acción queda supeditada al desarrollo y puesta en marcha del apartado "quejas en el ámbito de la igualdad" de la WEB del SVD.

2.3. Aparte de las actuaciones que se incorporen de forma transversal en los diferentes niveles establecidos en las acciones 2.1 y 2.2, el proyecto de desarrollo del *Avance del Plan Territorial Sectorial de Equipamientos Deportivos de la DFG* deberá contar con el apoyo del grupo de trabajo sobre igualdad en el deporte, para la incorporación de la perspectiva de género en el establecimiento de criterios apropiados para el diseño, construcción y distribución de los espacios y equipamientos deportivos.

Se elaborará un catalogo de recomendaciones desde la perspectiva de género, a incluir en los criterios del Avance del Plan Territorial Sectorial de Equipamientos Deportivos.

### 3. Diru-laguntzak

### 3. Subvenciones

<p><b>3. Diru-laguntzak ematea / Concesión de subvenciones</b></p>	<p>3.1. EAEn, kirolaren esparruko berdintasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko, administrazioek, diru-laguntzak eman eta kirol-instalazioak erabiltzeko baimenak eman baino lehen, eskatzaileak arau horiek (4/2005 Legea, 16/2006 Dekretua, 2008ko urtarrilaren 28ko Agindua, 125/2008 Dekretua) eta plan hau betetzen duela bermatu beharko dute/ Para garantizar el cumplimiento de la normativa existente en la CAPV con respecto a la igualdad en el ámbito deportivo, las administraciones públicas condicionarán las ayudas económicas y la utilización de instalaciones deportivas al cumplimiento de la misma (Ley 4/2005, Decreto 16/2006, Orden de 28 de enero de 2008, Decreto 125/2008) así como al cumplimiento del presente Plan.</p>
	<p>3.2. Kirol erakundeentzako diru-laguntzen oinarrietan, atal berezi bat ezarriko da kirolaren esparruan berdintasuna sustatzeko proiektuetarako. Lehenetsuna emango zaie berdintasunaren esparruan egitura-aldaketak egin nahi dituzten proiektuei/ En las bases de subvención a entidades deportivas, incluir un apartado específico para proyectos orientados al fomento de la igualdad en el ámbito deportivo. Se valorarán de manera preferente los proyectos orientados a producir cambios estructurales en este ámbito.</p>
	<p>3.3. Kirolaren esparruan emakumeen partaidetza sustatzeko ekintzak babesten dituzten erakunde pribatuentzako zerga-laguntzak ezartzea/ Establecer ayudas fiscales dirigidas a entidades privadas que patrocinen actividades que fomenten la participación de las mujeres en el deporte.</p>

**3.1.** Kirol Zerbitzuko webgunean "berdintasunari buruzko kexak" atala jarri behar da martxan, bestela ezin da ekintza hau egin.

**3.1.** Esta acción queda supeditada al desarrollo y puesta en marcha del apartado "quejas en el ámbito de la igualdad" de la WEB del SVD.

3.1.1 Gipuzkoako Foru Aldundiak kirolaren esparruan ematen dituen diru-laguntzen irizpideak berrikustea:

3.1.1 Revisión de los criterios de las líneas subvención de la DFG en materia deportiva:

- Klubak eta federazioak ("*kirol gaietako diru-laguntzen*" bitartez).
- Kirolgi fundazioa
- Ikuskizun kirola
- Udal entitateak

- Clubes y Federaciones (a través de las "*Ayudas en materia de deportes*")
- Fundación Kirolgi
- Deporte espectáculo
- Entidades Locales

Kirolgi eta ikuskizun kirolaren diru-laguntza oinarriak aztertu baino lehen, *Emakumearentzako goi-mailako kirola*" (2009ko 8. Mozioa) eta "Ikuskizun kirola" azterlanak egin behar dira.

El análisis de los criterios de subvención de las bases de Kirolgi y Deporte Espectáculo queda supeditado a los estudios sobre "deporte femenino de alto nivel –Moción 8, 2009- y "deporte espectáculo".

3.1.2 Diru-laguntzak emateko irizpideak aldatzeko proposamenak. Indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, aplikatu beharreko baldintzak hauek dira:

3.1.2 Propuestas de modificación de los criterios de subvención. En cumplimiento de la legislación existente, algunos de los principales requisitos a incorporar serán los

siguientes:

- Esleitutako zenbatekoaren genero-eragina eskatzea (aurrekontuak sexuaren eta kategoriaren arabera zehaztu behar dira).
- Kirol entitateetako gobernu-organoetan parekotasuna eskatzea.
- Lengoaia eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzen direla bermatzea.
- Solicitar el impacto de género de la cuantía otorgada (presupuestos desglosados por sexo y categoría)
- Exigir la paridad en los órganos de gobierno de las entidades deportivas
- Exigir un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes

**3.2.** Kirol erakundeentzako diru-laguntzen oinarrietan, kirolaren esparruan berdintasuna sustatzeko proiektuetarako berriarazko atal bat ezartzea. Lehenetsua emango zaie berdintasunaren esparruan egitura-aldaketak egin nahi dituzten proiektuei.

**3.2.** En las bases de subvención a entidades deportivas, incluir un apartado específico para proyectos orientados al fomento de la igualdad en el ámbito deportivo. Se valorarán de manera preferente los proyectos orientados a producir cambios estructurales en este ámbito.

**3.3.** Kirolaren esparruan egitura-aldaketak sustatzen dituzten proiektuei lehenetsua emateko helburuz, eranskin bat idatziko da diru-laguntzen dekreturako, *egitura-aldaketak sortzea zer den* azaltzeko.

**3.3.** De cara a priorizar los proyectos que fomenten la igualdad en el deporte a través de cambios estructurales, se redactará un anexo para el Decreto de Ayudas en el que se explique qué se entiende por *generar cambios estructurales*.

Kirol mezenasgoari diru-laguntzak emateko irizpideak berrikusiko dira, eta beharrezkoa bada, emakumeen kirola babesteko ekimenak sustatzeko proposamena egingo da.

Se revisarán los criterios de ayudas al mecenazgo deportivo, y en caso de que se estime oportuno, se realizará una propuesta para incentivar el patrocinio del deporte femenino.

**4. 5. 6. Emakumeek kirol praktikaz bestelako mailetara ere iristeko aukera sustatzea**

**4. 5. 6. Acceso de las mujeres a otros niveles diferentes a la práctica deportiva**

**4. Zuzendaritzakoak**

**4. Directivas**

<p><b>4. Emakumeek kirol praktikaz bestelako mailetara ere iristeko aukera sustatzea</b> (Erakundeetako zuzendaritza-karguak)/ Acceso de las mujeres a <b>otros niveles diferentes a la práctica deportiva</b> (Cargos de dirección de entidades)</p>	<p>4.1. Elkartegintza-sistemaren modernizazioa bultzatzea, funtzionatzeko modu atzerakoiak ezabatzeko eta mekanismo horiek egokitzea, emakumeek erabakiak hartzeko postuetara sarbide eta irispide errazagoa izan dezaten/ Impulsar la modernización del sistema asociativo para eliminar los mecanismos de funcionamiento retrógrados y adecuarlo para posibilitar el acceso de las mujeres a los puestos de decisión de los mismos.</p> <p>4.2. EAEko nahiz lurralde-mailako kirol federazioetako hauteskunde-araudiak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak ezartzen dituen urtarrilaren 28ko Agindua, batetik, eta baita Plan hau bera ere, bestetik, betetzeko prozedura eta mekanismo legalak ezartzea, emakumeak Federazioetako zuzendaritzetan sartzeari dagokionez/ Desarrollar procedimientos y mecanismos legales para el</p>
---	---

<p>4. Emakumeek kirol praktikaz bestelako mailetara ere iristeko aukera sustatzea (Erakundeetako zuzendaritza-karguak)/ Acceso de las mujeres a otros niveles diferentes a la práctica deportiva (Cargos de dirección de entidades)</p>	<p>cumplimiento de la Orden de 28 de enero (por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales y para la realización de elecciones de las federaciones deportivas vascas y territoriales) y de este Plan con respecto a la incorporación de las mujeres a las directivas de las federaciones.</p> <p>4.3. Beste kirol erakunde batzuetako araudia garatzea, emakumeei erakunde horietako zuzendaritzako postuetara iristeko modua bermatzeko/ Desarrollar una normativa para otras entidades deportivas, con objeto de garantizar el acceso de las mujeres a los puestos directivos de las mismas.</p>
---	---

4.1.a. Elkartegintza-sistemaren modernizazioa bultzatzeko gomendio-katalogoa osatzea, funtzionatzeko modu atzerakoiak ezabatzeko eta mekanismo horiek egokitzea, emakumeek erabakiak hartzeko postuetara sarbide eta irispide errazagoa izan dezaten.

4.1.a. Desarrollar un catalogo de recomendaciones para impulsar la modernización del sistema asociativo para eliminar los mecanismos de funcionamiento que impiden el acceso de las mujeres a los puestos de decisión de los mismos.

4.1.b. Gipuzkoako kirol-federazio eta -klub garrantzitsuenei prestakuntza-ikastaro bat ematea, generoaren ikuspegia kirol entitateetan nola sartu behar den ikasteko.

4.1.b. Impartir un curso de formación a federaciones y clubes deportivos más relevantes de Gipuzkoa acerca de la incorporación de la perspectiva de género en las entidades deportivas.

4.2. 2012.urtean, lurraldeko kirol federazioetako hautagaitzek legea betetzen dutela (urtarrilaren 28ko Agindua) bermatu beharko da. Horretarako, Kirol Zuzendaritza Nagusiak "*Klubei buruzko politika*" proiektua erabiliko du, eta emakumeei zuzendaritza-mailetara sarbidea bermatzeko irizpideak ezarriko ditu bertan.

4.2. En 2012 deberá garantizarse el cumplimiento de la legislación en las candidaturas a las federaciones deportivas territoriales (Orden de 28 de enero). Esta acción se llevará a cabo a través del proyecto "*Política sobre clubes*" de la DGD, incluyendo en el mismo criterios para garantizar el acceso de las mujeres a los estamentos directivos.

4.3. Diagnosi bat egitea, Gipuzkoan, kirol-esparruko maila ezberdinetan parte hartzen duten emakumeen (zuzendariak, teknikariak, epaileak) egoera ezagutzeko.

4.3. Realizar un diagnóstico para conocer la situación de las mujeres que participan en los diferentes niveles del ámbito deportivo de Gipuzkoa (directivas, técnicas, árbitras).



## 5. Teknikariak

## 5. Técnicas

<b>5. Emakumeek kirol praktikaz bestelako mailetara ere iristeko aukera</b> sustatzea (Teknikariak) / Acceso de las mujeres a <b>otros niveles diferentes a la práctica deportiva</b> (Técnicas)	5.1. Azterketa bereziak egitea, emakumeek teknikarien mailara iristeko gainditu beharreko oztopoak identifikatzeko/ Realizar estudios específicos para identificar los obstáculos existentes para el acceso de las mujeres al estamento de técnicos y técnicas.
	5.2. Ekintza positiboko neurriak ezartzea, emakumeak teknikarien maila horretara iristeko modua bultzatu eta ahalbidetzen duten erakundeentzako/ Establecer medidas de acción positiva para las entidades que impulsen y posibiliten el acceso de las mujeres a este estamento.

5.1. eta 5.2. Gazteen artean kirola sustatzeko planaren bitartez, berariazko planteamenduak garatzea, eta esku-hartzen ari den modalitateetan (emakumeen futbola eta emakumeen arraunketa) emakumeak bertara iristeko sarbideak bultzatzea.

5.1. y 5.2. Desarrollar planteamientos específicos a través del Plan Deportivo Joven (PDJ) y en las modalidades en las que se esté interviniendo (fútbol femenino y remo femenino) para impulsar el acceso de las mujeres a este estamento.

## 6. Epaileak

## 6. Árbitras

<b>6. Emakumeek kirol praktikaz bestelako mailetara ere iristeko aukera</b> sustatzea (Epaileak)/ Acceso de las mujeres a <b>otros niveles diferentes a la práctica deportiva</b> (Árbitras)	6.1. Mekanismo egokiak ezartzea, emakumeak arbitro-lanetan edo epaile gisa aritzeko modua izan dezaten. Plan hau indarrean dagoen bitartean, mekanismo horien helburua izango da emakumeek epaile bezala kirol-modalitate bakoitzean duten partaidetza-kuoten antzeko mailetara ere iristea/ Establecer mecanismos adecuados para que las mujeres accedan al arbitraje o a puestos de juezas. En el periodo de vigencia de este Plan, estos mecanismos tendrán como objetivo alcanzar cuotas similares a la presencia de las mujeres en la práctica deportiva de la modalidad correspondiente.
	6.2. Emakume arbitro eta epaileak kirol mailarik gorenetaraino iris daitezen lagunduko duten kuotak eta mekanismoak ezartzea, goimailako errendimenduko kirolaren adierazpen profesionalak ere barne hartuz/ Establecer cuotas y mecanismos para impulsar el acceso de las árbitras y las juezas al ámbito del arbitraje en los máximos niveles deportivos, incluyendo las expresiones profesionales del deporte de alto rendimiento.

## 7. Prestakuntza

## 7. Formación

7. Emakumeen <b>prestakuntzarako</b> aukera ematea/ Acceso de las mujeres la <b>Formación</b>	7.1. Administrazio publikoetan kirol politikak diseinatu eta ebaluatzen dituzten pertsonak gaitzea, beren eskumeneko eremuan indarrean dagoen legeria eta Plan honetan aurreikusten diren ekintzak behar bezala beteko direla bermatu eta ziurtatzeko/ Capacitar a las personas de las administraciones públicas que diseñan y evalúan las políticas deportivas para garantizar que en el ámbito de su competencia se cumpla la legislación existente y las acciones contempladas en el presente Plan
	7.2. Eremu honetako eragileei (gizonei zein emakumeei) kirol-esparruan generoaren ikuspegia kontuan hartzeko prestakuntza berezia eskaintzea, eremu horretan gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatuko duten neurriak ezarri eta har ditzaten/ Proporcionar formación específica sobre la incorporación de la perspectiva de género en el ámbito del deporte a los y las agentes de este ámbito, para que diseñen e implementen medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el mismo.

7.1. 2011. urtean "*Guía para la incorporación de la perspectiva de género a la gestión deportiva local*" (*Tokiko kirol-kudeaketan generoaren ikuspegia sartzeko gidaliburua*) gida argitaratu da. Material hori euskarri gisa erabiliko da, kirolaren esparruan teknikariei prestakuntza-ikastaro bat emateko. 2011n prestakuntza nork jasoko duen zehaztuko da (GFA, udalak) eta 2012rako prestakuntza-saioak programatuko dira.

7.2. Diru-laguntzen oinarrietako irizpideak betetzen direla bermatzeko, eta generoaren ikuspegitik kirol-esparrua kudeatzeko tresnak emateko, Gipuzkoako federazio eta klub garrantzitsuenetako langileei prestakuntza berezia emango zaie. Ikastaro horretarako euskarri-materiala duela gutxi argitaratutako "*Euskal kirol federazioetan genero ikuspuntua integratzeko gida*" izango da. Prestakuntza hori egiteko, KIROLARTE kirol-kudeaketa hobetzeko programa erabiliko da.

Federazio bakoitzak berdintasunaren gaietarako ordezkari bat izendatu beharko du, eta pertsona hori derrigorrez joan beharko da prestakuntza-saiotara.

7.1. En 2011 se ha publicado la "Guía para la incorporación de la perspectiva de género a la gestión deportiva local". Este material servirá de soporte para realizar un curso de formación al personal técnico del ámbito deportivo. En 2011 se identificarán las personas susceptibles de recibir la formación (DFG, Ayuntamientos) y se programarán sesiones de formación para 2012.

7.2. Para garantizar el cumplimiento de los criterios de las bases de subvención, así como para proporcionar herramientas para gestionar el ámbito deportivo desde la perspectiva de género, se realizará una formación específica con el personal de las federaciones y clubes más relevantes de Gipuzkoa. El material de soporte para este curso será la recientemente publicada "*Guía para incorporar la perspectiva de género en las federaciones deportivas vascas*". Esta formación podrá llevarse a cabo a través del Programa para la mejora de la gestión deportiva KIROLARTE.

Cada federación deberá designar una persona interlocutora sobre igualdad en la entidad, y ésta deberá asistir obligatoriamente a la formación.

### C.3. GIZARTE POLITIKA. ULIAZPI

### C.3. POLÍTICA SOCIAL. ULIAZPI

#### GIZARTE POLITIKA

#### POLÍTICA SOCIAL

##### SARRERA

##### INTRODUCCIÓN

Osasunera heltzea / Acceso a la salud	BEZaren tasa murriztuak jarduera eta produktu sanitarioetarako. Gastu medikoak PFEZn kentzeko aukera (desagertu da...)/ Tipo reducidos en IVA para actividades y productos sanitarios Posibilidad de deducciones en IRPF por gastos médicos (ya no existe...).
Hezkuntza eta jakintzara heltzea / Acceso a la educación y al conocimiento	BEZaren tasa murriztuak hezkuntza arloko jarduera eta produktuetarako / Tipo reducidos en IVA para actividades y productos educativos.
Bizitzeko etxe egoki eta seguru bat izatea/ Acceso a un espacio doméstico adecuado y seguro	Kenkaria Errenta Zergan, ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeagatik, edo hura errentan hartzeagatik. Tasa murriztua ondare eskualdaketen gaineko zergan, etxebizitza erosten denean. OHZ: tasa murriztuak, salbuespenak,.../ Deducción en IRPF por adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual, así como por alquiler de la misma. Tipo reducido en el ITP y AJD para adquisición de vivienda. IBI: existencia de tipos reducidos, exenciones,...
Baldintza egokietan ordaintzen den lan bat egitea / Acceso a un trabajo remunerado en condiciones adecuadas	Kenkaria sozietateen gaineko zergan, enplegua sortzeagatik. PFEZn baterako tributazio erregimena mantentzea edo kentzea / Deducción Impuesto de Sociedades por creación de empleo Mantenimiento o supresión del régimen de tributación conjunta en el IRPF
Diru sarrerak lortu ahal izatea / Acceso a obtención de ingresos monetarios	Kenkaria sozietateen gaineko zergan, enplegua sortzeagatik / Deducción Impuesto de Sociedades por creación de empleo.
Zaintzak jasotzea / Acceso al cuidado	PFEZn kenkaria aplikatzea mendeko pertsonak izateagatik, mendeko pertsonak zaintzeko laguntzak salbuetsita uztea, .../ Deducción en IRPF por dependencia, exención de las cantidades recibidas como ayudas para el cuidado de personas dependientes,...

Hala ere, oro har, eztabaida piztu duen gai bat da zenbait jarduketa arlotan ez ote den eraginkorrago sarreren politika fiskaletik jardutea baino gehiago horiei gastu programetatik heltzea. Adibidez, zenbait teoriak diote PFEZren oinarri ezgarriak

Sin embargo, con carácter general, existe una discusión previa sobre si algunas áreas de actuación son más o menos eficientes desde la vía de la política fiscal de ingresos, y resulta más recomendable actuar desde los programas de gasto. Por ejemplo, determinadas teorías

zabal definitu beharko lukeela zer den errenta, eta onuradun fiskalen kopurua mugatu beharko lukeela bai oinarrian bertan eta bai kuotako kenkarietan. Horrela, politika orokor gehienak gastu programen bitartez eraman beharko lirarteke aurrera.

señalan que la base imponible del IRPF debería incluir una definición amplia de renta, con un número de beneficios fiscales limitado, tanto en la propia base, como en las deducciones en cuota. De esta manera, la mayoría de las políticas generales deberían implementarse a través de programas de gasto.

### **3.- Jarduketa/programen emaitzen azterketa**

### **3.- Análisis de resultados de actividades/programas**

#### **a.- Onuradunak izan daitezkeenak: adierazleak**

#### **a.- Colectivo potencialmente beneficiario: Indicadores**

Onuradunak zein izan daitezkeen ezagutzea. Hutsuneak ezagutzan:

Conocimiento del colectivo beneficiario. Lagunas en el conocimiento:

PFEZren zergadunei dagokienez, gaur egun posible da ia denen sexua jakitea (datua aitortutako eskatzen da, nahiz eta zenbait kasutan datu hori ez den agertzen paperean aurkeztutako aitortutako). Sexuaz gain, badira beste datu batzuk ere, hala nola adina, bizilekua, aitortutako errenta, seme-alaba kopurua,... onuradunak zehatzago ezagutzeko aukera ematen dutenak.

En cuanto a las personas contribuyentes del IRPF, se está cerca de conocer el sexo de prácticamente la totalidad de las mismas (ya que se pide el dato en las declaraciones, aunque a veces falta en las declaraciones presentadas en papel). Junto a la variable sexo, se dispone también de la edad, lugar de residencia, renta declarada, número de hijos,... que facilitan el conocimiento más detallado del colectivo beneficiario.

Orobat, planteatu da sexu aldagaia beste eredu batzuetan sartzea, lan atxikipenen 190 ereduan kasu, horrek ahalbidetu dezakeelako errenta horiek jasotzen dituzten guztien datuak izatea, errentan aitortu edo ez.

También se ha planteado la introducción de la variable sexo p.ej. en el modelo 190 de retenciones del trabajo, de cara a contar con los datos de todos los perceptores de estas rentas, independientemente de si declaran en renta o no.

Gainera, gipuzkoar guztien sexua ezagutze aldera, EUSTATen bitartez erroldako datuak eskuratzeko posibilitatea aztertzen ari da.

Además, se está trabajando con la posibilidad de acceder a los datos del censo a través de EUSTAT, de cara a contar con el dato sexo de toda la ciudadanía guipuzcoana.

Zeharkako zergen kasuan, BEZean adibidez, ezinezkoa da zergadunen sexua jakitea. Izan ere, zergapetua amaierako kontsumitzailea izan arren, zerga enpresa ekoizle edo banatzaileak aitortzen du. Zerga horien bilakaera ikusteko eta zerga politikek haietan dituzten ondorioak ezagutzeko, kontsumoaren kanpo azterketak egin beharko lirarteke.

En el caso de los impuestos indirectos, como es el caso del IVA, nos es imposible determinar el sexo de los contribuyentes, ya que si bien es el consumidor final el que es gravado con el impuesto, es la empresa productora o distribuidora la que declara el impuesto. Para conocer su evolución y posibles efectos de las políticas fiscales en estos impuestos, debería recurrirse a estudios externos sobre consumo, p.ej.

#### **b. Jardueren datuei buruzko hausnarketa**

#### **b.- Reflexión entorno a los datos de las actividades**



i. Aukeratutako adierazleak

Adierazleak aukeratzeko garaian, iruditzen zaigu selektiboak izatea komeni dela. Uste dugu adierazle gehiegi erabiltzea ez dela oso lagungarria eztabaida zentratzeko, eta gerta daiteke arreta oso esanguratsuak ez diren alderdien gainean jartzea. Eskarmentuak erakutsiko digu non kokatu arreta; nolana ere, proposamen gisa honako adierazleak hautatu dira:

i.1. Emakumeen eta gizonen batez besteko errenta eta tasa nominala

	<b>Batez besteko errenta (euroak)</b>	
	<b>Renta media (euros)</b>	
	<b>2008</b>	<b>2009</b>
<b>Emakumeak/ Mujeres</b>	14.747	15.468
<b>Gizonak/ Hombres</b>	25.103	25.865

	<b>Batez besteko tasak 2009an</b>	
	<b>Tipos medios 2009</b>	
	<b>Nominala/ Nominal</b>	<b>Efektiboa/ Efectivo</b>
<b>Emakumeak/ Mujeres</b>	%24,6	%13,5
<b>Gizonak/ Hombres</b>	%26,0	%16,2

Ondorioak:

- Errenta mailan diferentzia argi bat dago emakumeen eta gizonen artean. Adibidez: 2009an gizonen batez besteko errenta 10.397 euro handiagoa da emakumeena baino (+%67,2).
- PFEZ zerga progresiboa da: oinarri ezargarria hazten den neurrian karga tasa nominala hazi egiten da. Hau da, ordaindu beharreko kuota errenta maila baino neurri handiagoan hazten da.
- Emakumeen errenta maila gizonezkoena baino txikiagoa denez, zergaren progresibitatea gehitzeko hartzen diren neurri fiskalek gizonengan izango dute eragin handiagoa, eta, beraz, amaierako errenta erabilgarrian dauden desberdintasunak arintzeko balio dute.
- Horrez gain, kontuan izanik emakumeak gehiago agertzen direla beheko errenta

i. Indicadores seleccionados

A la hora de seleccionar los indicadores nos parece de gran interés ser especialmente selectivos. Creemos que un excesivo número de indicadores no ayuda a centrar el debate y dispersa la atención sobre aspectos que quizás no son especialmente significativos. La experiencia nos mostrará donde focalizar la atención, en cualquier caso, y a modo de propuesta se han seleccionado los siguientes:

i.1. Renta media y tipo nominal medio de mujeres y hombres.

Conclusiones:

- Existe una clara diferencia a nivel de rentas entre mujeres y hombres. Por ejemplo, en 2009 la renta media de los hombres supera a la de las mujeres en 10.397 euros (+67,2%).
- El IRPF es un impuesto progresivo: el tipo de gravamen nominal es una función creciente de la base imponible. Es decir, la cuota a pagar crece en mayor medida que el nivel de renta.
- Debido a que las mujeres tienen un nivel de renta inferior al de los hombres, las medidas fiscales dirigidas a aumentar la progresividad del impuesto tendrán un mayor efecto en los hombres; y, por tanto, mitigan las desigualdades en la renta final disponible.
- Además, teniendo en cuenta que las mujeres se concentran más en los tramos

tarteetan, tarte zehatz horietan indarra jartzeak onura gehiago ekarriko die emakumeei.

bajos de renta, actuar en esos tramos concretos beneficiará en mayor medida a las mujeres.

- Aurrezpenaren oinarriak duen banaketak erakusten du emakumeen partaidetza handiagoa dela (%45,9); horren ondorioz, haien tasa nominala igotzeak (jaisteak) batik bat emakumeei dakarkie kaltea (onura).
- La distribución de la base del ahorro muestra una mayor participación de las mujeres (45,9%), por lo que subidas (bajadas) de su tipo nominal perjudican (benefician) más a las mujeres.

#### i.2. Errenta Zergan kenkariak aplikatzea

#### i.2. Aplicación de deducciones en IRPF

<b>2009an aplikatutako kenkarien portzentajea / Porcentaje de aplicación del importe de deducciones en 2009</b>		
	<b>Emakumeak/ Mujeres</b>	<b>Gizonak/ Hombres</b>
<b>Ohiko bizilekua eskuratzea/ Acceso a vivienda habitual</b>		
<b>Erosketa, birgaiketa/ Adquisición, rehabilitación</b>	38,4	61,6
<b>Alokairua / Alquiler</b>	42,3	57,7
<b>Mendetasunaren kenkaria / Deducción por dependencia</b>	41,9	58,1
<b>Ondorengo ahaideen kenkaria/ Deducción por descendientes</b>	37,5	62,5
<b>Sindikatuaren aldeko ekarpenak/ Aportaciones a sindicatos</b>	35,0	65,0

<b>Oinarri likidagarriaren portzentajea 2009an / Porcentaje de la base liquidable en 2009</b>		
	<b>Emakumeak/ Mujeres</b>	<b>Gizonak/ Hombres</b>
<b>Oinarri likidagarri orokorra/ Base liquidable general</b>	35,5	64,5
<b>Aurrezpenaren oinarri likidagarria/ Base liquidable del ahorro</b>	45,9	54,1
<b>Oinarri likidagarria, guztira/ Base liquidable total</b>	<b>36,8</b>	<b>63,2</b>

Kuotako kenkarien datuak aztertzean, erreferentzia gisa hartzen dugu zer pisu duen sexu bakoitzak oinarri likidagarri osoan (%36,8 emakumeak eta %63,2 gizonak). Datu horretatik abiatuta, aztergai hartzen ditugu zenbateko handieneko kenkariak, oinarriaren banaketa horretatik gehien aldentzen direnak.

A la hora de analizar los datos de las deducciones en cuota, tomamos como referencia el peso que tiene cada sexo en la base liquidable total (36,8% mujeres y 63,2% hombres). A partir de ese dato analizamos las deducciones más importantes cuantitativamente y que más se separan de esa distribución de la base.

#### Ondorioak:

#### Conclusiones:

- Oro har, zergaren konfigurazioetatik beragatik (progresibitatea) eta emakumeek oinarri likidagarria txikiagoa
- En términos generales, debido a la propia configuración del impuesto (progresividad) y a que las mujeres

dutenez, kuotako kenkariak emakumeei dakarkie onura gehiago (errenta edozein dela ere aplikatzen dira, aitoren guztietan eta zenbateko nominal berean).

presentan una menor nivel de base liquidable, las deducciones en cuota (aplicables con independencia de la renta y en la misma cuantía nominal en todas las declaraciones) favorecen más a las mujeres.

- Ohiko etxebizitza eskuratzeagatik aplikatzen den kenkarian bi mota bereizten ditugu: erosketagatik aplikatzen den kenkaria eta alokairuari dagokiona. Lehenengo kasuan, aplikatutako kenkari portzentajeak (emakumeak %38,4 eta gizonak %61,6) oinarri likidagarri osoari dagozkion portzentajeen "pare" daude. Hala ere, alokairuaren kenkarian emakumeen pisua %42,3ra igotzen da. Printzipioz, badirudi emakumeek arazo gehiago izaten dituztela etxebizitza erosteko garaian. Hortaz, zerga politikaren barruan, ohiko etxebizitzaren alokairua sustatu eta errazteko neurriak onura gehiago ekarriko die emakumeei.
- En la deducción por acceso a la vivienda habitual diferenciamos entre la deducción por adquisición y la deducción por alquiler. En el primer, caso los porcentajes de deducción aplicados (mujeres 38,4% y hombres 61,6%) están "ceranos" a los de la base liquidable total. Sin embargo, en la deducción por alquiler el peso de las mujeres se eleva al 42,3%. En principio, parece que las mujeres tienen mayores problemas a la hora de acceder a la compra de vivienda. Por tanto, dentro de la política tributaria las medidas dirigidas a fomentar y facilitar al alquiler de la vivienda habitual favorecerán en mayor medida a las mujeres.
- Mendetasunaren kenkarian ere emakumeek dute partaidetza handiagoa (%41,9). Hori kontuan izanik, kenkari hori hobetzeko hartzen diren neurrietan emakumeak izango dira bereziki onuradunak.
- También en la deducción por dependencia se observa una mayor participación de las mujeres (41,9%). Por lo que medidas dirigidas a mejorar esa deducción favorecerán más a las mujeres.
- Ondorengo ahaideen kenkarian (kuantitatiboki garrantzitsuenetarikoa bat da kenkari hau), ez da diferentzia nabarmenik ikusten oinarri likidagarriaren banaketa eremuan.
- En la deducción por descendientes (una de las más importantes cuantitativamente) no se observan diferencias significativas respecto al patrón de distribución de la base liquidable.
- Sindikatuen aldeko ekarpenen kenkarian, emakumeen partaidetza %35,0 da. Diferentzia horren arrazoia izan daiteke emakumeek jarduera tasa txikiagoa dutela lan merkatuan.
- En la deducción por aportaciones a sindicatos la participación de las mujeres (35,0%) esta por debajo. La menor tasa de actividad laboral de las mujeres puede explicar esa diferencia.

i.3. Baterako aitorenak: kopurua eta zenbatekoa

i.3. Declaraciones conjuntas: número e importe

<b>Baterako aitorenak/ Declaraciones conjuntas (% kopuru osoaren gainean) / (% sobre total)</b>	
1993	%39,10%
1999	%32,10%
2003	%28,30%
2009	%21,30%

Azken 15 urteotan asko aldatu da Errenta Zerga aitortzeko modua. Izan ere, 1993an baterako aitortpenak kopuru osoaren %39,1 ziren; hala ere, partaidetza hori jaitsiz joan da %21,3ra iristeraino.

Zerga kalkulatzeko eratuta dagoen sistema dela-eta (oinarri ezargarri orokorrari murrizpen bat aplikatzen zaio), batera aitortzeko aukera onuragarria izaten da lanaren edo jardueraren etekinak ezkontideetako batek bakarrik lortzen dituenean (edo horietako batek oso errenta txikiak jasotzen dituenean). Bi ezkontideek lan egiten dutenean (besteren zein norberaren kontura), hobeto ateratzen da banaka aitortzea, eta ez da aplikatzen batera aitortzeagatik oinarri ezargarriari aplikatzen zaion murrizpena.

Aurreko taulan jasotako datuek erakusten dute ezen emakumeak apurka-apurka lan merkatuan etengabe sartuz joatearen ondorioz (emakumeen okupazio tasa %47 izan zen 2000. urtean, eta %61 2010ean), baterako aitortpen kopurua murriztu egin dela, eta haien portzentajea ia erdira jaitsi dela 1993-2009 epealdian.

Horri dagokionez, teoria batek baterako tributazioa kentzea proposatzen du, eta horretarako dio tributazio mota hori ez dela mesedegarria emakumeak lan merkatura iritsi daitezen; aitzitik, teoria horren arabera, baterako tributazioak betikotu egiten du emakumeek tradizioz izan duten zeregina (etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea), eta genero desberdintasuna egoteko baldintzak mantentzen ditu.

## ii. Bilketa metodoa

Dauzkagun datuak nahikoak dira zerga politika arloan hartzen diren erabakiek genero ikuspegitik duten eragina aztertzen hasteko. Etorkizunean indarra jarri beharko da datuen bilketa sistematizatzeko, datuen denborazko seriek lortzeko, segimendua izango duten adierazleak gehitzeko, etab... Arau aldaketen eragina neurtze aldera sistematikoki banakako txostenak egiteak zabaldu egingo du analisiaren perspektiba, eta lagungarria izango

En los últimos 15 años se ha producido un cambio importante en la forma de declarar en el IRPF. Así, las declaraciones conjuntas suponían en 1993 el 39,1% del total; pero esa participación ha ido descendiendo hasta situarse en el 21,3%.

El propio sistema de cálculo del impuesto hace que la opción de la declaración conjunta, el cual consiste en aplicar una reducción en la base imponible general, resulte favorable en aquellos casos en los que sólo uno de los cónyuges obtengan rendimientos del trabajo o de actividades (o uno de ellos obtenga rentas muy poco significativas). Cuando ambos cónyuges trabajan (por cuenta ajena o propia) la opción de tributación individual es la más favorable, por lo que no existe reducción en la base imponible.

En base a los datos observados en la tabla anterior, observamos como la paulatina y constante incorporación de la mujer al mercado laboral (la tasa de ocupación de las mujeres en 2000 era del 47% y en 2010 del 61%), ha traído consigo una disminución del número de declaraciones conjuntas, bajando su porcentaje casi a la mitad en el período 1993-2009.

Con respecto a este hecho, existe una teoría que propone la eliminación de la tributación conjunta, alegando el hecho de que este tipo de tributación no favorece la incorporación de la mujer al mercado de trabajo, sino que perpetúa el papel ama de casa y de cuidado ejercido tradicionalmente por las mujeres, y mantiene las condiciones para que exista desigualdad de género.

## ii. Método de recogida

Los datos disponibles resultan suficientes para empezar a realizar el análisis sobre el impacto que desde la perspectiva de género tienen las decisiones de política tributaria. En el futuro habrá que realizar esfuerzos en: sistematizar la recogida de datos, obtener series temporales de datos, ampliar los indicadores de los que se va a hacer un seguimiento... La experiencia y la realización sistemática de informes individuales que midan el impacto de las

da aintzat hartu beharreko aldagaien inguruan adostasun bat izan dadin, haien gainean ezarriko baitira behar diren helburuak, hala behar izatekotan.

iii. Datu eta adierazleei buruzko hausnarketa

4b ataleko adierazleei buruzko iruzkinak baliagarriak dira hausnarketa zentratzeko.

- Progresibitate handiago bat bilatzen duten neurriak, oro har, emakumeentzat dira “onuragarriak”.
- Kenkariak ere emakumeei dakarkie, proportzioan, “onura” gehiago, aldeak handiak badira ere. Zehazki, etxebizitzaren alokairuagatik eta pertsonen zaintzagatik aplikatzen diren kenkariak haien alde egiten dute neurri handiagoan.
- Baterako tributazioagatik gaur aplikatzen den murrizpena kentzea hainbat adituk proposatzen duten bezala, ondorio handiak ditu eta beste neurri batzuekin dago lotuta: laguntzen indibidualizazioa beste esparru batzuetara eramatea, erantzukizun partekatua sustatzeko politikei gastu gehiago bideratzea... Nolanahi dela ere, proposamen hori familien kalterako izango litzateke bi ezkontideetako batek lanaren edo jardueren errentarik ez duenean eta lan merkatuan sartu ezin daitekeenean (adina, prestakuntza...). Hori dela eta, aukera bat izan liteke tributazio mota hori apurka-apurka kentzea adin batetik aurrera (esate baterako, murrizpena kentzen hastea errentarik ez duen ezkontideak 40 urte baino gutxiago dituenen, eta urtero beheraka joatea urte kopuruan).

#### **4.- Berdintasun alorreko helburuen betetze mailari buruzko hausnarketa**

**a. eta b.- Lotura Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gipuzkoako 2008-2011 Foru Planarekin. Zer neurri hartu diren eta zelakoak hartu daitezkeen?**

diferentes modificaciones normativas, ampliará la perspectiva de análisis y facilitará la fijación de un consenso sobre las variables relevantes a vigilar y sobre las que interesará, en su caso, fijar objetivos sobre el valor que deberían alcanzar las mismas.

iii. Reflexión sobre los datos e indicadores

Los comentarios que se acompañan a los indicadores (apartado 4b) son válidos para centrar la reflexión.

- Medidas que incidan en una mayor progresividad “favorecen”, en general, a las mujeres.
- Las deducciones también “favorecen” proporcionalmente en mayor medida a las mujeres, aunque con diferencias significativas. En concreto, los incentivos de alquiler de viviendas y las deducciones ligadas al cuidado favorecen con mayor intensidad.
- La eliminación de la reducción por tributación conjunta defendida por diferentes analistas es de gran alcance y está ligada a otras medidas: generalizar a otros ámbitos la individualización de las ayudas, destinar mayor gasto a políticas que fomenten la corresponsabilidad... En cualquier caso, perjudicaría a familias en los que uno de los cónyuges no obtiene rentas de trabajo o de actividades y, que por otro lado, no puede acceder al mercado de trabajo (edad, formación...). Por ello, una opción podría ser que su eliminación fuese progresiva a partir de una edad (por ejemplo, empezar por eliminar la deducción por tributación conjunta cuando el cónyuge que no obtiene rentas tiene menos de 40 años y añadir uno cada año ¿?)

#### **4.- Reflexión en torno al grado de cumplimiento de los objetivos en materia de igualdad**

**a. y b. Vinculación con el Plan Foral para la igualdad de mujeres y hombres en Gipuzkoa 2008-2011. ¿Qué medidas se han adoptado y se pueden adoptar?**

Genero eragina ebaluatzeko hautatu diren programak ongi uztartzen dira 2008-2011 Berdintasun Planarekin, eta urrats bat gehiago ematen dute berez. Izan ere, lege obligazio bati erantzuteaz gainera, aurrekontua genero ikuspegitik ebaluatzen dute, eta hori garrantzi kualitatibo handiko ekintza bat da, herritarren ongizatean eragiten duten eta gizartea alda dezaketen bi tresna aztertzen baititu: Foru Aldundiaren gastu eta sarrera politikak.

2008-2011 Berdintasun Plana Aldundiak prestatu duen lehenengoa da, eta bere ondorio positiboen artean besteak beste aipa daiteke bai departamentuen barruan eta bai departamentuen artean oinarritzko dinamikak sortu dituela berdintasun gaietan aurrera egiteko, Aldundiaren ukitu gabeko eremuetan generoaren hausnarketa sartu duela, eta genero arloko prestakuntza bultzatu duela.

Epe ertain eta luzera, planak jasotzen dituen zeharkako ekintzak etengabeak eta konstanteak izan behar dira (pertsonek trebakuntza indartzea, hizkuntzaren erabilera sustatzea, hirugarrenekiko harremanetan generoaren aldagaia aintzat hartzea, edo datu estatistikoetan sexuaren aldagaia sartzea, besteak beste).

Garrantzi berezikoak izan beharko lirake familia eta lana bateragarri egiteko eta erantzukizun partekatua sustatzeko aurrera eramaten diren jarduketak. Ekintza berritzaileak exijitzen ditu horrek, Funtzio Publikoak bultzatu eta ezarri behar dituenak sindikatuarekin ados jarrita.

Era berean, departamentuek garatzen dituzten ekintzak selektiboak, eraldatzaileak eta garrantzitsuak izan behar dira; alde horretatik, aurrekontuaren ebaluazioak eman dezake informazio hori, pertsonengan duen eragina sakonki aztertu denez gero. Horrela, departamentuetako ekintza guztien arteko sinbiosia, eta genero ikuspegitik egiten den ebaluazioa, erabatekoa izango

Los programas relevantes seleccionados para la evaluación de impacto de género encajan con el Plan de Igualdad 2008-2011 e incluso dan un paso adelante, tanto por el hecho de responder a una obligación legal como por el hecho de que la evaluación del presupuesto desde la perspectiva de género constituye en sí misma una acción de relevancia cualitativa que permite evaluar las políticas de gasto y de ingresos de la institución, ambos instrumentos con alta capacidad de incidir en el bienestar de la ciudadanía y generar cambios en la sociedad.

El Plan de Igualdad 2008-2011 es el primero elaborado por la diputación y ha tenido la gran virtud de ir creando dinámicas intradepartamentales e interdepartamentales esenciales para avanzar en igualdad, de incorporar la reflexión sobre género en ámbitos inéditos en la diputación, de impulsar la formación en materia de género, entre otras.

A medio y largo plazo las acciones incorporadas al plan de carácter transversal que inciden en la capacitación de las personas, en el uso del lenguaje, en la consideración de la variable género en la relación con terceros o en la incorporación de la variable sexo en datos estadísticos, entre otros, deben ser continuas y constantes.

Especial relevancia deberían adquirir aquellas relacionadas con la conciliación familiar y corresponsabilidad que requieren de acciones innovadoras pero deben ser impulsadas e implantadas por Función pública de acuerdo con los agentes sindicales.

De igual modo las acciones a desarrollar por lo departamentos deberán ser selectivas, con capacidad transformadora y relevantes; en este sentido la evaluación presupuestaria puede ser el instrumento que aporte esa información dado que se ha realizado un análisis profundo sobre su impacto en las personas; de esta manera la simbiosis entre todas las acciones departamentales y su evaluación desde la perspectiva de género

lirateke, eta inplikaturaren dauden pertsonen lana erraztuko litzateke.

sería completa y se facilitaría la labor de las personas involucradas en el mismo.

Oro har, interesgarria izango litzateke hurrengo planak lidergo politiko indartsu bat izatea, epe ertain eta luzera egina egotea, eta garrantzi handiko ekintzak jasotzea, ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa barne.

Con carácter general, el próximo plan sería de interés que contara con un fuerte liderazgo político, con una visión a medio y largo plazo, con acciones de relevancia alta y con una evaluación cuantitativa y cualitativa.

#### **c.- Udalek alor honetan duten zereginaren hausnarketa**

#### **c.- Reflexión en torno al papel de los ayuntamientos en este ámbito**

Zerga politikako programak barruan hartzen ditu, baita ere, udal zergen definizioa eta egitura (Udal Ogasunen Foru Araua, OHZ, Ibilgailuen gaineko zerga,...). Udal zerga sistemaren diseinuan eta definizioan udalek beti hartu dute parte EUDEL-en bitartez.

El programa de política fiscal también abarca la definición y estructura de los tributos locales (Norma Foral de Haciendas Locales, IBI, Impuesto sobre Vehículos...). En el diseño y definición del sistema tributario local siempre se ha contado con la participación de los ayuntamientos a través de EUDEL.

Bestalde, Zerga eta Finantza Politikako programak udalei zerga alorreko aholkularitza emateko jarduerak biltzen ditu. Alde horretatik, lan bat izan liteke berdintasun gaietan kontzientziatzea, zabaltea eta prestakuntza ematea.

Por otro lado, el programa de Política Fiscal y Financiera también recoge actividades de asesoramiento municipal en el ámbito tributario. En este sentido se podría realizar un papel de concienciación, difusión y formación en materia de igualdad.

#### **d.- Gizarte-partaidetzak alor honetan duten zereginaren hausnarketa**

#### **d.- Reflexión en torno al papel de la participación social en este ámbito**

Arauk prestatzeko prozesuaren barruan, badago prozedura orokor bat edozein pertsonari, elkarteri eta abar, aukera ematen diona haren tramitazioan parte hartzeko (jendaurreko informazioa...).

Dentro del propio proceso de elaboración normativa existe un procedimiento general a través del cual cualquier persona, asociación... puede tomar parte en la tramitación de los mismos (información pública...).

Gainera, arauen elaborazioa proposatzeko garaian, gizarte taldeek, elkarteek eta abarrek beti egin ditzakete ekarpenak.

Además siempre existe la posibilidad de que grupos sociales, asociaciones... realicen sus propias aportaciones a la hora de proponer la elaboración de normas.

#### **e.- Agintaldiko Plan Berriarekin dituen loturen hausnarketa**

#### **e.- Reflexión respecto a las vinculaciones con el Nuevo Plan de Legislatura**

Agintaldiko Plan Berria onartu arte itxaron beharko da.

Habrà que esperar a la aprobación del Nuevo Plan de Legislatura.

#### **5.- Txosten hau egiteko, zer pertsonak hartu duten parte eta zenbat denbora erabili den**

#### **5.- Relación de personas y tiempos invertidos en la elaboración de este informe**

Txosten hau pertsona hauek prestatu dute:

Las personas participantes en la elaboración de este informe han sido las siguientes:

- Olatz Ugaldek
- Joxean Lapeirak
- Sebas Zurutuzak

- Olatz Ugalde
- Joxean Lapeira
- Sebas Zurutuza

Gaur arte, 25 ordu inguru behar izan dira txosten hau idazteko.

El tiempo invertido hasta la fecha en la redacción de este informe ha sido aproximadamente de 25 horas.

Era berean, txosten honen zirriborroa behin idatzita, aintzat hartzekoa da Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuak egin dezakeen ekarpena, zerbitzu horrek garrantzi handia baitu programaren barruan. Hortaz, zirriborroa Jose Luis Hernandezi helarazi zaio, eta lan taldeko kide bihurtuko da.

Asimismo una vez elaborado el borrador de este informe interesa la incorporación de personal del Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico por su relevancia dentro del programa. De esta manera, este borrador se ha pasado a José Luis Hernández, que se incorporará al grupo de trabajo.



## C.5. BERRIKUNTZA

### 1.- SARRERA

Programak sailkatu eta garrantziaren zein aurrekontu pisuaren arabera hautatzeko erabilitako irizpideen azalpena da agiri hau.

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren 2012ko aurrekontuak ondoko programak biltzen ditu:

## C.5. INNOVACIÓN

### 1.- INTRODUCCIÓN

Descripción de la clasificación y selección de los programas en función de su relevancia y peso presupuestario

El presupuesto de 2012 del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo se estructura en los siguientes programas:

PROGRAMA / PROGRAMA	AURREKONTUA / PRESUPUESTO	PISUA / PESO
01.- Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoko Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo	2.686.171,00	4,96%
10.- Zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzea/ Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación	3.553.075,00	6,56%
11.- Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza/ Aprendizaje a lo largo de toda la vida	2.035.462,00	3,75%
12.- Kultura ekintzailea eta jarduera berritzaile eta ekonomikoaren sustapena/ Promoción de la cultura emprendedora y actividad innovadora y empresarial	9.004.579,00	16,61%
20.- Berrikuntza digitala/ Innovación digital	4.173.465,00	7,70%
30.- Landa Garapena eta Nekazal Egiturak/ Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias	12.110.323,00	22,34%
31.- Fraisoro laborategia/ Laboratorio Fraisoro	1.647.318,00	3,04%
32.- Abereen ekoizpena eta osasuna sustatzea Fomento producción y sanidad animal	4.342.923,00	8,01%
33.- Landaretzaren sustapena eta esperimentazioa Promoción y experimentación vegetal	904.236,00	1,67%
40.- Mendiak eta Habitaten kudeaketa Montes y Gestión de Hábitats	9.467.110,00	17,46%
41.- Basa Animaliak eta Landareak Fauna y Flora Silvestre	2.049.209,00	3,78%
50.- Kanpo harremanak Relaciones externas	650.567,00	1,20%
51.- Turismo eta lurralde irudia Turismo e imagen territorial	1.582.975,00	2,92%
<b>Totala / Total</b>	<b>54.207.413,00</b>	<b>100,00%</b>

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren aurrekontuak aurrekontu osoaren %1,34 eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa aurrekontuaren %7,98 hartzen du.

Programak honela daude sailkatuta generoarekiko duten eraginaren arabera:

El presupuesto de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo representa el 1,34% del presupuesto total y el 7,98% del presupuesto de gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La clasificación en cuanto a su pertinencia o no respecto a género es la siguiente:

<p><b>PROGRAMA EGOKIAK/ PROGRAMAS PERTINENTES</b></p>	<p>01.- Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoko Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.  10.- Zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzea/ Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación.  11.- Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza/ Aprendizaje a lo largo de toda la vida.  12.- Kultura ekintzailea eta jarduera berritzaile eta ekonomikoaren sustapena/ Promoción de la cultura emprendedora y actividad innovadora y empresarial.  20.- Berrikuntza digitala/ Innovación digital  30.- Landa Garapena eta Nekazal Egiturak/ Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias.  31.- Fraisoro laborategia/ Laboratorio Fraisoro.  32.- Abereen ekoizpena eta osasuna sustatzea/ Fomento producción y sanidad animal.  33.- Landaretzaren sustapena eta esperimentazioa/ Promoción y experimentación vegetal.  40.- Mendiak eta Habitaten kudeaketa/ Montes y Gestión de Hábitats.  41.- Basa Animaliak eta Landareak/ Fauna y Flora Silvestre.  50.- Kanpo harremanak/ Relaciones externas.  51.- Turismo eta lurralde irudia/ Turismo e imagen territorial.</p>	<p>Pertsona fisiko zein juridikoak dira programen azken hartzaileak, edo programek eragina dute, zuzenean edo zeharka, gizonengan eta emakumeengan, baliabideak eskuratzeari eta kontrolatzeari dagokionez/  Tiene como grupo destinatario final a personas físicas o jurídicas y /o afectan directa o indirectamente a mujeres y hombres, respecto al acceso y/o control de los recursos</p>
---	--	---

Programa eragindunek Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko aurrekontu osoaren %100 hartzen dute.

Los programas pertinentes representan el 100% del presupuesto total de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburuari begira zenbateko garrantzia duten aztertu ondoren, honela sailkatu dira genero ikuspegitik eraginduntzat hartutako programak:

La clasificación de los programas declarados pertinentes atendiendo a su relevancia para el objetivo de igualdad de mujeres y hombres ha dado el siguiente resultado:

<b>PROGRAMA EGOKIAK PROGRAMAS PERTINENTES</b>	<b>AURREKONTUA PRESUPUESTO</b>	<b>PISUA PESO</b>
<b>GOI GARRANTZIKO ALTA RELEVANCIA</b>	<b>11.040.041,00</b>	<b>20,36%</b>
11.- Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza/ Aprendizaje a lo largo de toda la vida.	2.035.462,00	3,75%
12.- Kultura ekintzailea eta jarduera berritzaile eta ekonomikoaren sustapena/ Promoción de la cultura emprendedora y actividad innovadora y empresarial.	9.004.579,00	16,61%
<b>ERDI GARRANTZIKO RELEVANCIA MEDIA</b>	<b>19.836.863,00</b>	<b>36,60%</b>
10.- Zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzea/ Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación.	3.553.075,00	6,56%
20.- Berrikuntza digitala/ Innovación digital	4.173.465,00	7,70%
30.- Landa Garapena eta Nekazal Egiturak/ Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias.	12.110.323,00	22,34%
<b>BEHE GARRANTZIKO RELEVANCIA BAJA</b>	<b>23.330.509,00</b>	<b>43,04%</b>
01.- Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoko Zerbitzu Orokorak/ Servicios Generales de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.	2.686.171,00	4,96%
31.- Fraisoro laborategia/ Laboratorio Fraisoro.	1.647.318,00	3,04%
32.- Abereen ekoizpena eta osasuna sustatzea/ Fomento producción y sanidad animal	4.342.923,00	8,01%
33.- Landaretzaren sustapena eta esperimentazioa/ Promoción y experimentación vegetal.	904.236,00	1,67%
40.- Mendiak eta Habitaten kudeaketa/ Montes y Gestión de Hábitats.	9.467.110,00	17,46%
41.- Basa Animaliak eta Landareak/ Fauna y Flora Silvestre.	2.049.209,00	3,78%
50.- Kanpo harremanak/ Relaciones externas.	650.567,00	1,20%
51.- Turismo eta lurralde irudia/ Turismo e imagen territorial.	1.582.975,00	2,92%
<b>Genero ikuspegitik programa egokiak, guztira / Total programas pertinentes</b>	<b>54.207.413,00</b>	<b>100,00%</b>

11. programa, "Bizitza osoko ikaskuntza" izenekoa, eta 12. programa, "Kultura ekintzailea eta jarduera berritzaile zein ekonomikoaren sustapena" izenekoa, garrantzi handikotzat jo dira, lan- eta prestakuntza-politiketan duten eraginagatik.

Se han considerado de "Relevancia alta" los programas 11 "Aprendizaje a lo largo de toda la vida." y 12 "Promoción de la cultura emprendedora y actividad innovadora y empresarial" por la incidencia de sus actuaciones dentro de las políticas de empleo y formación.

Aurrekontu-ahaleginari dagokionez, hiru puntu dira aipagarriak:

En referencia al esfuerzo presupuestario pueden señalarse tres aspectos:

- 110. programan garatuko diren jarduera guztien barne genero-eraginaren azterketa modu proaktiboan aplikatuko dute;
- 110. programetako portzentaje handi batek; % 34k hain zuzen, genero-eraginari buruzko azterketa egingo du, eta gainera, jarduera horiek dira gizartean eta populazioan eragin handiena dutenak;
- Aipagarria da departamentuak esparru horretan egin duen ahalegina, oraingo
- La totalidad de las actuaciones a desarrollar en el Programa 110 van a incorporar de forma pro-activa una análisis del impacto de género;
- Un porcentaje significativo -34%-de los programas del 110 también lo van ha hacer; y, además son en aquellas actuaciones de mayor incidencia social y poblacional; y
- Es destacable el esfuerzo en este ámbito del Departamento, aunque

egituran jarduera-esparru berriak sartu diren arren: Landa Garapena, Kanpo Harremanak eta Turismoa.

el nuevo Departamento haya incorporado nuevas áreas de actuación: Desarrollo Rural, Relaciones Exteriores y Turismo.

#### **110. PROGRAMA: BIZITZA OSOKO IKASKUNTZA**

Ikaskuntza-lurralde bihurtzea da Gipuzkoaren asmoa, ikasten duen lurralde izan nahi du, bertan, eragile guztiek berariazko ikaskuntza-premiak asetzeko batera lan egiteko eta arazo komunitarako irtenbide bateratuak hartzeko; ikaskuntzaren kultura sustatzen duen lurraldea izan nahi du Gipuzkoak, eragile guztien artean tokiko lankidetzara eraginkorra garatuz eta pertsonen, erakundeen eta gizartearen oro har, ikaskuntzan parte hartzeko laguntza eta sustapena emanez.

Lurralde orekatu, kohesionatu eta lehiakorra eraiki nahi dugu, jakintzaren gizartearen oinarrituta, eta beraz, baita pertsona guztien osoko garapenean ere.

Eta hauek dira proiektu horren helburu estrategikoak:

- Bizitza osoko ikaskuntza-prozesuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.
- Aukera-berdintasuna, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzea.
- Sormena, berrikuntza eta ekintzailetasuna sustatzen dituzten testuinguruak sortzea.

Helburu horiek oinarritzat hartuta, berariazko estrategiak gauzatu nahi dira, era horretan, bizitza osoko ikaskuntzaren bitartez, ezagutzaren gizarte aurreratua garatzeko. Bertan, garapen ekonomikoa iraunkorra izango da, lanpostu gehiago eta hobeak egongo dira, gizarte kohesioa handiagoa izango da, eta faktore horien guztien helburua izango da gizarte kohesioa, herritartasun aktiboa, kultura arteko hartu-emanak, enplegarritasuna, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta norberaren errealizazioa indartzea.

#### **PROGRAMA 110: APRENDIZAJE A LO LARGO DE TODA LA VIDA**

Gipuzkoa, pretende convertirse en un Territorio del Aprendizaje, un territorio que aprende, un territorio en el que todos los agentes colaboran para atender necesidades de aprendizaje específicas y adoptar soluciones conjuntas para problemas comunes, un territorio que promueve una cultura del aprendizaje desarrollando cooperaciones locales eficaces entre todos sus agentes, y que apoya e incentiva a las personas, a las organizaciones y a la sociedad en su conjunto a participar en el aprendizaje.

Se trata de construir un territorio equilibrado, cohesionado y competitivo basado en la Sociedad del Conocimiento y, por tanto, en el desarrollo integral de todas las personas.

Y, que tiene como objetivos estratégicos:

- Mejorar la calidad y la eficiencia de los procesos de aprendizaje a lo largo de toda la vida
- Fomentar la igualdad de oportunidades, la cohesión social y la ciudadanía activa
- Generar contextos favorables a la creatividad, la innovación y el emprendizaje

Y desde esas bases, pretenden articularse estrategias específicas para, mediante el aprendizaje a lo largo de toda la vida, desarrollar una sociedad del conocimiento avanzada, con un desarrollo económico sostenible, con más y mejores puestos de trabajo y con una mayor cohesión social, que tengan como objetivos reforzar la propia cohesión social, la ciudadanía activa, el diálogo intercultural, la empleabilidad, la igualdad entre hombres y mujeres y la realización personal.

Horrek guztiak, bi jarduera-ardatz dakartza, besteak beste:

Lehenengoa, jarduerak hiru eskumen-funtsetan ardaztea:

- Ikasten ikasi.
- Jarduera sozial eta hiritarrak.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturala.

Eta, bigarrena, eskumenak eskuratzeko esparru guztietan testuinguru mesedegarriak garatzea, eta horrekin batera, bizitza osoko ikaskuntzaren kontzeptua aitortu eta horri balio soziala emateko prozesu bat abian jartzea.

#### ○ **Bizitza osoko ikaskuntza**

Bizitza osoko ikaskuntza sustatzen duten jarduerak garatu beharko dira (funtsezko eskumenak garatzea, testuinguru mesedegarriak sortzea, herritartasun aktiboaren kontzeptua bultzatzea eta horien sustapenerako laguntza-tresnak garatzea). Jarduera horiek guztiek helburu hauek dituzte:

- Pertsonak garatzea, beren potentzial guztia erabili eta osotasunean bizitzeko.
- Gizartea garatzea, bereziki partaidetza sustatuz, pertsona eta taldeen arteko ezberdintasunak gutxitu eta kultura-aniztasuna areagotzeko.
- Ekonomia garatzea, giza gaitasunak bilakaera ekonomiko eta teknologikoaren araberakoak izateko beharrezko ahalegin guztiak eginez.

#### ○ **Bizitza osoko ikaskuntza hedatu eta balio soziala ematea**

Neurri horren helburua da ikaskuntza hedatzea eta horri balio soziala ematea, helburu hauetarako tresna gisa:

- Bizitza osoko ikaskuntza sustatzeko politikak garatzeko premiaren hautematea hobetzeko.

Todo ello, entre otras cosas supone, dos principios de actuación:

Uno, focalizar las actuaciones en tres competencias-clave:

- Aprender a aprender.
- Sociales y cívicas.
- Conciencia y expresión culturales.

Y, dos, desarrollar unos contextos favorables en el conjunto de los ámbitos de adquisición de competencias junto con un proceso de reconocimiento y valoración social del concepto de aprendizaje a lo largo de toda la vida.

#### ○ **Aprendizaje a lo largo de toda la vida**

Las actuaciones a desarrollar serán aquéllas que promuevan el Aprendizaje a lo largo de toda la vida (desarrollo de las competencias clave, creación de contextos favorables, impulso del concepto de ciudadanía activa y desarrollo de instrumentos de apoyo en su promoción). Y, que estén orientadas:

- al desarrollo de la persona, para que pueda desplegar todo su potencial y vivir en plenitud;
- al desarrollo de la sociedad, en particular favoreciendo la participación, reduciendo las disparidades y desigualdades entre personas y grupos y fomentando la diversidad cultural;
- al desarrollo de la economía, haciendo lo necesario para que las capacidades humanas correspondan a la evolución económica y tecnológica.

#### ○ **Difusión y valoración social del ALTV**

El objetivo de esta medida es promover la difusión y valoración social del aprendizaje como modo de:

- Mejorar la percepción de la necesidad de desarrollar políticas de promoción del aprendizaje a lo largo de toda la vida.

- Bizitza osoko ikaskuntzak garapen pertsonala (pertsonek), lehiakortasuna (profesionala eta enpresak) eta gizarte kohesioa (gizarte eta lurraldea) bateratu ditzakeela dioen ideia zabaltzeko.
- Difundir la idea de que el aprendizaje a lo largo y ancho de toda la vida puede integrar el desarrollo personal (personas), la competitividad (profesional y empresas) y la cohesión social (sociedad y territorio).

## **120. PROGRAMA, KULTURA EKINTZAILEA ETA JARDUERA BERRITZAILE ZEN EKONOMIKOAREN SUSTAPENA<sup>1</sup>**

Gipuzkoak jarduera ekonomikoaren eta pertsonen garapenerako espazio erakargarri bihurtu nahi du, gizarte eta lurralde-eredu iraunkorraren barne, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia lehiakorraren aldeko apustua egiten baitu. Horretarako, jardueratutako hauek diseinatuko dira:

- Kanporantz irekita dagoen ezagutzaren alde egitea, Gipuzkoako ehundura ekonomikoa bereizteko, horretarako talentua, ikerketa zientifikoa, garapen teknologikoa, berrikuntza eta ekintzailetasuna oinarritzat hartuta.
- Gipuzkoako egungo enpresa-eredua aldatzea, antolaketa-egitura berriak garatuz, lankidetzak eta proiektu partekatuak sustatuz eta enpresa-proiektuetan pertsonen partaidetza sustatuz.
- Gipuzkoari beharrezko aurrerapena edukitzeko gaitasuna ematea, eragile publiko eta pribatuen zein sektore arteko eta sektore barneko lankidetzak-sareak indartuz, era horretan, horiek ordezkatzeko dituzten sozio-ekonomia, gizarte eta hezkuntza-eragileak eta lurralde-eragileak modu globalean lehiatu daitezten.

Hori guztia, norabide estrategikoko argi batekin: ekonomia irekia, oso lehiakorra, sozialki berdintasunezkoa garatzea, teknologikak modu

## **PROGRAMA 120: PROMOCIÓN DE LA CULTURA EMPRENDEDORA Y LA ACTIVIDAD INNOVADORA Y EMPRESARIAL<sup>2</sup>**

Gipuzkoa pretende convertirse en un espacio atractivo para el desarrollo de la actividad económica, y de las personas, que apuesta por una economía competitiva basada en el conocimiento y la innovación, en un modelo social y territorialmente sostenible. Y, para ello se van a diseñar los siguientes ejes de actuación:

- Apostar por una economía del conocimiento abierta al exterior, que diferencie al tejido económico guipuzcoano sobre la base del talento, la investigación científica, el desarrollo tecnológico, la innovación y el emprendizaje.
- Transformar el modelo empresarial guipuzcoano actual a través del desarrollo de nuevas estructuras organizativas, el fomento de la colaboración y proyectos compartidos, la participación de las personas en los proyectos empresariales.
- Dotar a Gipuzkoa de la capacidad de anticipación necesaria, potenciando las redes de colaboración entre agentes privados y públicos e inter e intra sectoriales que representen a los diferentes agentes socio-económicos, sociales, educativos y territoriales para competir a nivel global.

Todo ello, con una orientación estratégica clara: desarrollar una economía abierta, altamente competitiva, socialmente

<sup>1</sup> Aurrekontu programa honetan jarduera gehiago aurreikusi dira, baina aukera-berdintasunean eragin zuzena duten jarduerak bakarrik aztertuko dira txosten honetan (ikus 3. atala).

<sup>2</sup> dentro de este programa presupuestario se contemplan más actuaciones pero en este informe únicamente se analizarán aquellas actuaciones que se han estimado que tienen una mayor incidencia directa en la igualdad de oportunidades (ver apartado 3).

aurreratuan erabiltzen dituen, konektatua eta iraunkorra dena, betiere berrikuntza eta ezagutzan oinarritutakoa, eta funts gisa esparru teknologiko eta industrial duena. Funts horrek garapen endogenoa eta eskari global zein balio erantsi handia dituzten sektore berriak konbinatu behar ditu.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa da Gipuzkoa eraldatzea, gizarte ekintzaile bihurtzeko. Horretarako, ekintzailetasunaren aldeko inguruneak bultzatu eta kudeatuko dira hezkuntzaren, familiaren, erkidegoaren eta enpresaren esparruetan. Horren bitartez, besteak beste, helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Gaitasunak lortzeko esparru guztietan ekintzailetasunaren eta sormenaren kultura modu sistematikoan sustatzea, hezkuntza-sistema osoa bereziki azpimarratuz.
- Enpresak sortzeko ekimenak sustatzen dituzten programak modu sistematikoan garatzea, bereziki teknologia-osagai handiko eta nazioarteko proiektio handiko sektoreetan.
- Enpresen antolaketa-ereduetan berrikuntza sustatzea. Enpresetan partaidetza eta pertsonen erantzukizun bateratua sustatzea. Erakundeetako barne-talentua eta sormena sustatu eta dinamizatzea.
- Atzerrian Gipuzkoako enpresen presentzia sustatzea.

Ildo horretan, gizarte ekintzailea eraikitzeke osoko estrategia bat diseinatu da, hiru esparru barne hartuz:

- Ekimenaren zentzuaren sustapena.
- Enpresak sortu eta finkatzeko prozesuetarako laguntza.
- Enpresen lehiakortasun eta iraunkortasunaren areagotzea, berrikuntzaren eta eragile guztien

igualitaria, que hace un uso avanzado de las tecnologías, conectada, sostenible, basada en la innovación y el conocimiento y cuyo centro de gravedad tecnológico-industrial debe combinar el desarrollo endógeno y los sectores emergentes de alta demanda global y gran valor añadido.

Por ello, la Diputación Foral de Gipuzkoa apuesta por liderar la transformación de Gipuzkoa hacia una Sociedad Emprendedora, a través del impulso y la gestión de entornos favorables al emprendizaje, en los ámbitos educativos, familiares, socio-comunitarios y empresariales. Lo que supone, entre otros objetivos:

- Promover de manera sistemática una cultura del emprendizaje y la creatividad, en todos los ámbitos de adquisición de tales competencias, y, con un especial énfasis en el conjunto del sistema educativo.
- Desarrollar de manera sistemática programas dirigidos a promover iniciativas de creación de empresas, especialmente en los sectores de alto componente tecnológico y proyección internacional.
- Fomentar la innovación en los modelos organizativos de las empresas. Promover la participación y la corresponsabilidad de las personas en la marcha de las mismas. Promover y dinamizar el talento interno de las organizaciones, su creatividad.
- Fomentar la presencia de las empresas de Gipuzkoa en el exterior.

En este sentido, se ha diseñado una estrategia integral para la construcción de una sociedad emprendedora que incardina tres ámbitos:

- La promoción del sentido de la iniciativa.
- El acompañamiento en los procesos de la creación y consolidación de empresas.
- El incremento de la competitividad y sostenibilidad de las empresas, a través de la

konpromiso pertsonal eta sozialaren bitartez.

innovación y el compromiso personal y social de todos los agentes.

## 2.- HAUTATUTAKO PROGRAMEN AZTERKETA.-

Hauek dira programa hautatuak:

### - 110. programa.

- I+G+B proiektuak: Bi esparrutan duten eraginagatik: lehenengoa, emakumeak ikerketa-lantaldeetan sartzeagatik; eta bigarrena, ikerketa-lantalde horietan emakumeek duten erantzukizun-mailagatik.
- Hezkuntza-esparruan eta esparru sozio-emozionalean gaitasunak lortzea.
- Enpresa-esparruan gaitasun sozio-emozionalak eskuratzea.

### - 120. programa.

- I+G+B proiektuak: Bi esparrutan duten eraginagatik: lehenengoa, emakumeak ikerketa-lantaldeetan sartzeagatik; eta bigarrena, ikerketa-lantalde horietan emakumeek duten erantzukizun-mailagatik.
